

# SAKANAKO EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO I. PLANA

2020-2023





# errotik

SAKANA PAREKIDEA

---

SAKANAKO EMAKUME ETA GIZONEN  
ARTEKO BERDINTASUNERAKO I. PLANA


2020-2023

**Mank**  
s a k a n a



# AURKI BIDEA

<b>1. ZATIA</b> .....	<b>7</b>
<b>1.1. AURREKARIAK</b> .....	<b>8</b>
<b>1.2. TESTUINGURU NORMATIBOA</b> .....	<b>9</b>
<b>1.3. ABIAPUNTUA. DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK</b> .....	<b>15</b>
<b>1.4. SAKANAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO I. PLANA</b> .....	<b>19</b>
<b>2. ZATIA. PLANA. ESKUHARTZE ARLOAK</b> .....	<b>25</b>
<b>2.1. TOKIKO GOBERNANTZA GENERO-ZEHARKAKOTASUNA</b> .....	<b>26</b>
<b>2.2. INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK</b> .....	<b>28</b>
<b>2.3. BIZITZAREN JASANGARRITASUNERAKO ITUN SOZIAL BERRIA</b> .....	<b>29</b>
<b>2.4. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA, PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA     ETA JENDARTEAREN BALOREEN ALDAKETA</b> .....	<b>30</b>
<b>3. ZATIA. PLANAREN KUDEAKETA ETA EREDUA</b> .....	<b>59</b>
<b>3.1. PLANAREN GARAPENERAKO EGITURAK</b> .....	<b>60</b>
<b>3.2. IRAUNALDIA</b> .....	<b>63</b>
<b>3.3. PLANA GARATZEKO AURREKONTUA</b> .....	<b>63</b>
<b>3.4. PLANAREN KOMUNIKAZIOA</b> .....	<b>64</b>
<b>3.5. PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA</b> .....	<b>67</b>



SAKANAKO MANKOMUNITATEKO  
BATZAR OROKORRAK,  
LAKUNTZAN, 2020KO EKAINAREN 30EAN ONARTUA



“Ez gara onartzen ari aldatu ezin ditugun gauzak,  
onartu ezin ditugunak ari gara aldatzen”

**Angela Davis**





# HITZAURREA

**A**zken urteetan Sakanako Mankomunitateak hainbat urrats egin ditu emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzea helburu duten politikak martxan jartzeko. Lehenik eta behin, Sakanako 14 herrietako Udalek berdintasunerako politikak garatzeko eskumena eman zioten Mankomunitateari.

2018an eskualdeko emakume eta gizonen arteko genero-desberdintasunak aztertzeko diagnostikoa egin zen, eta ondoren, 2019an, berdintasunerako teknikaria kontratatu zen 14 udalen ekarpenari esker, eta Berdintasun Batzordea sortu zen.

2019ko urritik 2020ko otsailera bitarte garatu den parte-hartze prozesuaren emaitza da esku artean duzun dokumentua: Sakanako Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako I. Plana. Plan bizia da, Sakanako emakumeen, gizarte-eragileen, norbanakoen eta eskualdeko teknikari eta ordezkari politikoen ekarpenen, ikuspegiaren eta elkarlanaren emaitza.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ez baita zoriz gertatuko den zerbait, baizik eta kontzienteki lantzea eta beharrezkoak diren bitartekoak (giza baliabideak, ekonomikoak...) jartzea eskatzen baitu. Zentzu honetan, Berdintasunerako I. Plan honek urratsak modu kontzientean, planifikatuan eta sistematikoan egiteko aukera emanen digu.

Funtsean, aurrerantzean bai arduradun politikoek eta bai teknikari eta langileek gure eguneroko lanean erabiliko dugun bitarteko edo tresna izango da. Jarduera-eremu konkretu bateko ikuspegiak zabaltzea ahalbidetuko duena, eskualdeko ordezkari politiko eta teknikarien artean elkarlana sustatuko duena, eta Altsasuko Udaleko Berdintasun Zerbitzuarekin ere lankidetzarako bidea emango duena.

Balio feministetan oinarrituko den jendarte justuagoa eraikitze-ko ezinbestekoa delako erakundeetatik ere esku hartzea.

**David Oroz Alonso**

(Sakanako Mankomunitateko lehendakaria)

**Aizaga Zeberio Petriati**

(Sakanako Mankomunitateko Berdintasun Batzordeko lehendakaria)



1.  
ZATIA

## 1.1. AURREKARIAK

2018an Sakanako Mankomunitateak eskualdeko emakume eta gizonen arteko genero-desorekak aztertzea helburu zuen diagnostiko parte-hartzailea burutu zuen, egoera desberdinak eta behar espezifikoak ezagutzeko asmoz. Honela, behar eta errealitate desberdinak ezagutzeak, berdintasunaren inguruko azterketa burutzea baimendu ahal izan du. Hausnarketa sakon baten bidez eta eragile desberdinen parte hartzearekin, eskualdean dauden emakume eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko konpromiso eta neurri zehatzak hartzeko beharra ikusi zen. Diagnostiko honek Sakanako I. Berdintasun Plana izango denaren oinarriak landu zituen.

Lanketa horren ondorioz sortu zen 2019ko apirilean Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzua eskualdeko 14 Udalen hitzarmenari esker. Hauek dira Sakanako Mankomunitateko Berdintasun zerbitzua sortzeko hitzarmena sinatu zuten Udalak: Arakil, Arbizu, Arruazu, Bakaiku, Ergoiena, Etxarri Aranatz, Irañeta, Irurtzun, Iturmendi, Lakuntza, Olazti, Uharte Arakil, Urdiain eta Ziordia. Hitzarmen honen bidez 14 Udalek onartu zuten Mankomunitatearen esku uztea emakumeen eta gizonen arteko genero berdintasuna sustatzeko eta genero indarkeria ezabatzeko jardueretarako udal eskumena benetan gauzatzea. (Hitzarmeneko 1. Puntua)

Honela, Zerbitzua martxan jarri zenetik 6 hilabete pasata, Berdintasunerako Plana diseinatzeko parte hartzeko prozesua abian jarri zen garai berri bati hasiera emanez. Berdintasunerako Plan honen bidez eskualde mailako ikuspegia izango duten berdintasun politikak lantzeko aukera izango da. Tokiko esparrua da herritarrengatik eta sare ekonomiko eta sozialetik hurbilen dagoena, eta, hortaz, esparru egokienetako bat da emakumeen eta gizonen berdintasuna integratzeko.

Sakanako Mankomunitateak, Berdintasun Zerbitzuak bultzatuta, **“errotik Sakana parekidea”**, Sakanako emakume eta gizonen arteko Berdintasunerako I. Plana diseinatzeko parte hartzeko prozesua 2019ko urrian hasi zen Batzordeko kideen ahalduntze saioekin. 2020ko otsailean aldiz, parte hartze saioak burutu ziren prozesuari itxiera emanez.

Epealdi horretan Sakanako Mankomunitateko Plan Estrategikoa ere landu da eta prozesuan genero ikuspegia kontuan hartzen dela bermatzea izan da Berdintasun Zerbitzuaren helburu nagusia.

Sakanako Mankomunitateak errotik, sustraietatik, egin nahi du berdintasunerako bidea eta, horregatik, herritarrak eta bereziki emakumeak, elkarteak, arduradun politikoak, eta interesa izan duen oro gonbidatu ditu prozesu honetan parte hartzera eta ekarpenak egitera.

Covid-19aren krisiak bete betean hartu du Berdintasunerako Plan honen azken fasea eta egoera honek Berdintasunerako Plan honetan isla eta eragina izan du. Ildo honetan, I. Planak, azterketa feministatik abiatuta, krisiaren benetako garrantzia ulertzeko balio duen tresna bat izatea espero da eta horregatik Planaren ardatzetako bat Bizitzaren jasangarritasuna izango da. Jakin badakigu Covid-19 pandemiak eragindako dimentsio anitzeko krisi honi aurre egiterako orduan emakumeen eta gizonen abiapuntua ezberdina dela. Dena den, eta krisi honekin egoera larriagotu den arren, pandemia honen aurretik ere, soldata arrakala, zaintzen arrakala, partaidetza sozio politikoan ezberdintasunak eta indarkeria matxistak ere eguneroko errealitatea ziren.

## 1.2. TESTUINGURU NORMATIBOA

**Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legeak** adierazten duen bezala, **emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko lanean, Nafarroako administrazio publikoak beharturik daude politika publikoak egiteko modu berri bat erabiltzera. Egiteko moldeen aldaketa horren abiapuntu izango dira konpromiso eta lidergo politikoak, administrazioen arteko koordinazioa, eta ezarpenerako tresnak, bitarteko ekonomikoak eta genero-berdintasunaren arloan gaikuntza duten langileak izatea.**

Lege horrek berak tokiko politikari aitortzen dio gizartea berdintzaileagoa izan dadin duen indar eraldatzailea.

Urte hauetan lorpen ugari izan ditugu, helburu eta estrategia komuna ezartzearen emaitza zuzena izan direnak. Sakanako emakume eta gizonen arteko Berdintasunerako I. Plana egungo esparru arauemaitzailean oinarrituta dago (nazioartekoa nahiz estatukoa eta autonomiakoa). Araudi horren arabera, emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukera berdintasuna oinarri juridiko unibertsala da, eta jarduerak guztietan eta botere publikoen esku-hartze esparru guztietan izan behar du eragina.

Araudi zabala dago indarrean emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alorrean, giza eskubi-deen defentsan barne bildutako printzipio judizial moduan ulertuta.

Erreferentzia garrantzitsuenen artean honakoak dira aipagarrienak:

- **Nazioarteko esparruan:** Nazio Batuen gutuna (1945), EMAKUMEEN KONTRAKO DISKRIMINAZIO ERA GUZTIAK EZABATZEKO KONBENTZIOA (1979).
- **Europar Batasunaren esparruan:** Erromako Hitzarmena (1957) eta Amsterdameko Hitzarmena (1997).
- **Estatu mailan:** Espainiar konstituzioa (1978), Genero bortizkeriaren aurreko babeserako neurri integralen abenduaren 22ko 1/2004 Lege Organikoa. Emakume eta Gizonen arteko Berdintasun Eraginkorrera begirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa. Genero indarkeriaren kontrako Estatuko Ituna garatzeko presako neurriei buruzko abuztuaren 3ko 9/2018 Errege Lege Dekretua
- **Nafarroako Foru Erkidegoan: 17/2019 FORU LEGEA, apirilaren 4koa, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko legea. Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea.**

Era berean, Nafarroako Berdintasunerako Institutuak tokiko esparruan proposatutako txosten estrategikoa erabili dugu, oinarri gisa. Txostenak **“Genero-berdintasuna Nafarroako toki-erakundeetan. Udaletako Berdintasun Alorren lana planifikatu, kudeatu eta ebaluatzeko ibilbidea”** izena du, eta Nafarroako berdintasun-teknikari guztiek parte hartu zuten bere diseinuan eta Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Kontzeju eta Federazioak onetsi zuten.

Dokumentu honek toki entitateetako berdintasun-sailen eskumenak, funtzioak eta edukia zehazten ditu, berdintasuna sustatzeko konpromisoa kalitatearen eta bikaintasunaren irizpideekin bat gauzatu dadin. Oinarrizko dokumentua da, eta generoaren alorrean gauzatzen diren tokiko politikak planifikatu, kudeatu eta ebaluatzeko balio du.

Toki entitateen eskumenei dagokienez, aipatu beharrekoa da Genero indarkeriaren kontrako Estatu-

ko Ituna garatzeko presako neurriei buruzko abuztuaren 3ko 9/2018 Errege Lege Dekretua, aldaketa batzuk planteatzen baititu, besteak beste, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearena, 25. artikuluari o) letra gehituz, zeinaren bidez **udalei eskumen berekia esleitzen baitzaie, “emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko jarduketak gauzatzeko eta genero-indarkeriaren kontra aritzeko”.**

Gizarteak azken hamarkadetan bizi izan dituen eraldaketa nagusietako bat emakumeek eta gizonen gure gizartean duten toki eta mailari lotuta dago. Eta bertan aldaketa handia gertatu denez, botere publikoen ekintza areagotu da, emakumeek eta gizonen egunero bizi duten errealitateari eragiteko.

Sakanako I. Plan honek, Foru legearen asmoekin bat egiten du: **bizitzaren jasangarritasuna jartzea politiken erdigunean, eta emakumeen ahalduntzea eta parte-hartzea bultzatzea herritarrek aktibo izan daitezten, kontuan hartuta gizakien bizitzaren eta lurralde jasangarriaren artean dagoen lotura estua bizitzaren garapenerako.** Herritarrek, gainera, ezagutzarako aukera izan behar dute, horrek ematen dielako gure gizarteak eskatzen dituen trebetasunak eta gaitasunak eskuratzeko bidea, bai eta modua ere desparekotasunaren agerpen nagusia den emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko.

Horrez gain, jardun eremu guztietan hartu behar da aintzat bestelako aldagaien konbinaziotik sortzen den diskriminazioa, alde anitzekoa dena: adina, klase soziala, nazionalitatea, etnia, desgaitasuna, sexu orientazioa, sexu- eta/edo genero-identitatea, bizilekuaren egoera administratiboa emakumezko migratzaileen kasuan, edo beste hainbat inguruabar; izan ere, aldagai horiek eskubideak egiaz baliatze desabantailak ekartzen dituzte emakume sektore batzuentzat. Arreta berezi hori giltzarria izanen da emakumeen zaugarritasuna handiagoa den testuinguruetan eragiteko.

**Administrazio publikoen jardunaren ardatzak berdintasun printzipioaren zeharkako ikuspegia izan behar du, lege-betebeharretik abiatuta baina sinetsirik horixe dela estrategia, berdintasuneko politika publikoak arrakastaz abian jartzeko eta berdintasun ezaren egiturazko sustraietan eraginkortasunez esku hartzea lortzeko.** Ezinbestekoa da estrategia hori ekintza positiboak ezartzearekin batera baliatzea, genero-arrakalak murrizteko aurrerapausoak azkartzeko lagungarri izan daitezten. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko lanean, Nafarroako administrazio publikoak beharturik daude politika publikoak egiteko modu berri bat erabiltzera, baina horrek ez du esan nahi prozedura berriak ezartzea, besterik gabe. Egiteko moldeen aldaketa horren abiapuntu izanen dira konpromiso eta lidergo politikoak, administrazioen arteko koordinazioa, eta ezarpenerako tresnak, bitarteko ekonomikoak eta genero-berdintasunaren arloan gaikuntza duten langileak izatea.

**Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legeak emandako definizioak aintzat hartu ditu Plan honek bere erredakzioan:**

### 3. artikulua. Definizioak.

- a) **Genero-arrakala:** emakumeen eta gizonen tasen arteko aldea, agerian uzten duena emakumeen eta gizonen artean dagoen desparekotasuna baliabideen banaketan eta boterea eskuratzean, testuinguru zehatz batean.
- b) **Hezkidetz:** emakumeen eta gizonen aukera berdintasun egiazkoa bultzatzen duen hezkuntza-ekintza, batzuen eta besteen esperientzia, gaitasunak eta ekarpen soziala eta kulturala berdin baloratzen duena, eskubide berdintasunean, estereotipo sexista, homofobiko, bifobiko, transfobiko edo androzentrikorik edo sexu, sexu-joera, genero-identitate edo genero-adierazpenagatiko diskriminazio-jarrerarik gabe.
- c) **Kontziliazioa:** pertsonen bizitzaren alderdi desberdinetan dituzten baliabideen eta denboraren

erabileren oreka, bereziki eremu pertsonalean, profesionalean, familiarrean edo lanekoan.

- d) **Erantzunkidetasuna:** emakumeek nahiz gizonek duten erantzukizuna, betebeharrak eta egin-beharrak antzekoak izan behar direla, bizitza bideragarria eta jasagarria izan dadin ekitatearen eta justizia sozialaren ikuspuntutik.
- e) **Berdintasun substantiboa:** tratua eta aukera berdinak izatea giza eskubide eta oinarriko askatasun guztiak aitortuak izan, baliatu eta erabiltzeko.
- f) **Genero-ikuspegia edo ikuspuntua:** errealitatearen analisia, kontuan hartzen dituen gizar-tean emakumeei eta gizonei esleitzen zaizkien rol eta eginkizun desberdinak, horiei ematen zaizkien balioa eta bien artean dauden erlazioak; emakumeen kontrako diskriminazioa, desparekotasuna eta bazterketa identifikatu, ezbaia jarri eta baloratzea ahalbidetzen du, bai eta genero-faktoreen gainean eragiteko eta genero-ekitatea eraikitzen aurrera egiten lagunduko duten aldaketarako baldintzak sortzeko abiatu behar diren ekintzak ere.
- g) **Segregazio okupazionala:** egoera honetan, lanbide batzuk emakumeek edo gizonek bete-tzen dituzte, gehiengoak; besteak beste, genero-rol eta -estereotipoen arabera aukeratu-tzen dituzte ikasketak batzuk, eta denbora edo espazioaren erabilera ere horrela banatzen dute batzuek eta besteek. Segregazio hori horizontala dela ulertzen da lanbide edo jardueraren multzo mugatu batean kontzentratzen diren, eta bertikala dela, berriz, desparekotasuna da-goenean zuzendaritzako kategorietara eta erabakitzeko ahalmena duten karguetara iristeko.
- h) **Bizitzaren jasangarritasuna:** paradigma bat, zeinak bizitzaren prozesua ulertzen baitu kontuan hartuz bai baliabide materialen beharrak bai zaintza eta maitasun testuinguruak eta harremanen beharrak.
- i) **Genero-zeharkakotasuna:** prozesu politikoaren antolaketa, hobekuntza, garapena eta eba-luazioa, halako moduz non genero-berdintasunaren ikuspuntua txertatzen baita politika guz-tietan, maila guztietan eta etapa guztietan.
- j) **Diskriminazio anizkoitza:** emakume bat edo emakume-talde bat dagoen egoera, diskrimi-nazio-egoera bat baino gehiago batera gertatzeagatik: adina, klase soziala, nazionalitatea, etnia, desgaitasuna, sexu-identitatea, sexu-orientazioa eta beste hainbat.

Plan honek, 17/2019 Foru legeak bere 4. artikuluan zehazten duena kontuan hartuko du printzipio hauen arabera jardungo du:

#### 4. artikulua. Jardute printzipioak.

- a) **Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipio konstituzionalaren eragin-kortasuna bermatzea,** sexuak eragindako zuzeneko nahiz zeharkako diskriminazio oro de-sagertzea ekarriko duena eta balio aldaketa eta bermea ezarriko dituen, bizitzaren eremu guztietan berdintasun substantiboa lortzeko.
- b) Emakumeen eta gizonen arteko **berdintasunaren printzipioa zeharkakotasunez ezartzea politika publiko guztien diseinuan, ezarpenean eta ebaluazioan.**
- c) **Ekintza positiboak.** Emakumeen eta gizonen egiazko berdintasun eraginkorra lortzea sus-tatzeko, botere publikoek neurri berariazkoak eta aldi baterakoak hartu behar dituzte, se-xuan oinarritutako eragindako egitatezko desparekotasunak, bizitzaren eremu desberdinetan daudenak, desagerrarazteko edo gutxitzeko.

- d) **Emakumeen ahalduntzea.** Haien autonomia eta parte-hartzea sustatzea, justizia sozialean aurrera egiteko eta berdintasuna lortzeko estrategia gisa.
- e) Politika publikoen helburua izan beharko du **erantzukidetasuna sustatzeak, antolaketa sozialaren printzipio iradokitzailea izan dadin**, antolaketa horrek lagun dezan eredu sozio-kulturalak aldatzen, generoan oinarritutako estereotipoak eta printzipioak ezabatze aldera.
- f) **Ordezkaritza orekatuaren printzipioa.** Emakumeek eta gizonen presentzia, parte-hartze eta ordezkari paritarioak izatea gai publikoetan, politika publikoen prestaketan eta ebaluazioan, kide anitzeko organoen osaketan, auzitegietan eta erabakiak hartzen diren guzietan. Printzipio horren arabera emakumeen eta gizonen presentzia, dagokion pertsona multzoan, halako modukoa izanen da no sexu bateko pertsonak ez diren izanen %60 baino gehiago, ezta %40 baino gutxiago ere, eta joko da sexu bakoitzeko %50 lortzera.
- g) Administrazioen, erakundeen eta gizarte eragileen arteko harremanak **elkarlana, koordinazio eta lankidetzaren printzipioetan oinarrituta egin daitezkeen sustatzea**, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta baliabideen erabilera eraginkorra bermatzeko.
- i) **Askotariko diskriminazioari erantzutea.** Erantzun instituzionalak arreta berezia jarriko die diskriminaziorako beste faktore erantsi batzuk dituzten emakumeei (adina, klasea, nazionalitatea, etnia, desgaitasuna, sexu- eta/edo genero-identitatea, sexu-orientazioa, bizileku administratiboaren egoera emakume migratzaileen kasuan, landa eremuko emakumeena edo desabantaila gehiago ekartzen dituzten bestelako inguruabarrak).
- j) **Gardentasuna**, desparekotasunak ikusgai jartzen dituen gizarte demokratiko batean aurrera egiteko, desparekotasun horien kontra joz.
- h) Botere publiko **guztiekin komunikazio inklusiboa eta ez-sexista erabiltzea, genero-estereotipoetan oinarritutako eredurik baliatu gabe.** Harreman sozialen eremuan ere sustatuko da.
- m) Emakume guztien berdintasuna bermatzea baliabideak eskuratzekoan (bereziki, **landa eremuko emakumeena, emakume migratzaileena, ezgaitasunen bat dutenena edo gutxiengo etnikoetako emakumeena**), bai eta ekonomian eta gizartean osoki, berdintasunez eta eraginkortasunez parte hartzea ere.

17/2019 FORU LEGEA, APIRILAREN 4KOA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNARI BURUZKO LEGEAK, BERE 12. ARTIKULUAN ZEHAZTEN DU TOKI ENTITATEEK BEREN ESKUMENAK BETETZEAN TXERTATUKO DUTELA EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAREN PRINTZIPIOA.

Bere **lurralde-eremuan toki entitateei eginkizun hauek** dagozkie berdintasun arloko politiken gaian:

- a) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko politikaren arloko helburuak eta jarraibideak ezartzea beraien lurraldean, Nafarroako Foru Komunitatearen politikekin koordinatuta.
- b) Beraien jarduketan guztietan genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna txertatzeko behar diren tresnak ezartzea. (marko normatiboa, trebakuntza eta prozedurak)

- c) Udal jardunaren eremu guztietan desparekotasuna eta diskriminazioak desagerrarazteko politikak gauzatzea.
- d) Emakumeen gabeziak eta beharrak aztertu eta atzematea, foru lege honen helburuak betetzeko kasuko lurralde-eremuan.
- e) Emakumeei arreta, informazioa eta orientabideak ematea eskura dituzten programa eta baliabideei buruz, beraien eskubideak egiaz erabil ditzaten laguntzeko.
- f) Herritarrak sentsibilizatzea, balio aldaketa sustatuz, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzen laguntzeko.
- g) Emakumeen autonomia pertsonala eta ekonomikoa sustatzea, emakumeen enplegua eta haien ahalduz pertsonala, kolektiboa eta soziala bultzatuz.
- h) Emakumeen presentzia sustatzea parte hartzeko organoetan eta erabakiak hartzeko guzietan.
- i) Emakumeen elkarteei eta talde feministei laguntzea, eta sustatzea parte har dezaten berdintasunaren eta genero zeharkakotasunaren politikak diseinatzen, egiten, garatzen eta ebaluatzen.
- j) Estatistika eguneratuak izatea, toki entitateen jardun eremuetan emakumeek eta gizonek dituzten egoera desberdinen berri izateko bide ematen dutenak.
- k) Ahaleginak eginen dira laneko eta familiako bizitza eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko tokiko baliabideak eta zerbitzuak ezarri eta egokitzeko.
- l) Bermatzea, Nafarroako Gobernuarekin koordinatuta, teknikarien eta politikarien berriazko prestakuntza dagozkien eginkizunak bete ditzaten foru lege honek ezartzen duenari dagokionez.

**Lege honek arautzen duen moduan, Toki entitateek genero-ikuspegia txertatuko dute beraien politika, programa eta ekintza administratibo guztietan, foru lege honetan ezartzen denari dagokionez eginkizunak garatu eta betetzeko langileak jartzea sustatuko dute, eta berdintasun ordenantzak egiten ahalko dituzte, apartatubeharrean atal honetan ezarritakoa jasotzeko.**

Horretarako, Toki entitateek emakumeen eta gizonen arteko berdintasun planak ezartzen ahalko dituzte beraien lurralde eremuan, eta, edozein kasutan, neurriak ezarriko dituzte emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko oztopoak kentzen joateko.

Lurralde osoan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko xedeaz, Nafarroako Gobernuak, bere eskumenak betez eta toki autonomiaren printzipio konstituzionala erabat errespetatuz, toki entitateei sostengua eta babesa emanen die, eta sustatuko du berdintasun teknikariak kontrata ditzaten, kooperazioaren printzipioari jarraikiz, toki entitateen nahikotasun finantzarioa foru lege honek esleitzen dizkien eginkizunei dagokienez

Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren bitartez, udal mailako eta udalez gaindiko toki entitateekiko koordinazio egitura bat ezarriko du foru lege honetan ezarritakoa betetzeko, zeina erregelamendu bidez garatuko baita.

Bukatzeko, **14/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egiteko legeak berebiziko garrantzia izango du Plan honen garapenean.**

**Emakumeen kontrako indarkeria, emakume izaeraren diskriminazioan oinarritutakoa, giza eskubideen urraketa bat da, egungo jendartearen gertatzen diren urratze ohikoenetako bat.** Funtsezko eskubideak, hala nola bizia, osotasun fisikoa eta mentala edo osasunerako eskubidea, zuzenean kalteztzen dituzten abusu horiek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren oinarritzko printzipioa ere urratzen dute.

Azken mende honetan gure jendartearen arazo honetaz jabetzen joan dela esan dezakegu, eta bereziki azken urteetan gaia azalera da gero eta nabarmenago.

Gaur egun fenomenoari ematen zaion garrantziari esker, nazioarteko komunitateak, eta bereziki Europar Batasunak, emakumeen kontrako indarkeria giza eskubideen kontrako urraketa dela onartu dute, eta, horrenbestez, gizarte demokratiko baten garapenerako oztopoa dela.

Foru legearen xedea da Nafarroako Foru Komunitatean **emakumeen kontrako indarkeriari aurre egitea, neurri integralak hartuz esparru hauetan: ikerketa, informazioa, prebentzioa, sentsibilizazioa, detekzioa, arreta integrala, babesa, justiziara jotzeko bideak eta erreparazioa.**

Foru legearen aplikaziorako esparru subjektiboan Nafarroan bizi edo lan egiten duten eta arestian deskribatutako indarkeria mota horietakoren bat jasaten duten emakume guztiak sartzen dira, bai eta, edozein arrazoi dela eta, Nafarroan daudenak indarkeria egoera gertatzen den unean, betiere errespetatuz beste administrazio batzuek dituzten eskumenak.

Emakumeen kontrako indarkeria egoerek familia ingurune horretan dauden adingabeengan ere eragina dutela ikusirik, foru lege honek indarkeria horren zuzeneko biktimatzat hartu, eta babestu egiten ditu, bai haien eskubideen defentsan bai arreta eta babes eraginkorra emateko, arlo honetako nazioarteko itunei jarraikiz.

Bestalde, arau honek definitzen du emakumeen kontrako indarkeriaren kontzeptua zentzu zabalenean, honakoak barne: **izaera fisiko, psikologiko, sexual edo ekonomikoko kalteak edo sufrimenduak, baita mehatxuak, ikaratzeko eta hertsatzeak edo askatasunaz modu arbitrarioan gabetzea ere, bizitza publikoan edo pribatuan.**

Emakumeak indarkeria horretatik babesteko, honakoak hartzen dira halakotzat: **bikotekidearen edo bikotekide ohiaren bortxa, sexu-indarkeriaren mota guztiak, feminizidioa, emakumeen eta nesken trafikoa, sexu-esplotazioa, gazteegitan, hitzartuta edo behartuta ezkonaraztea, edota emakumezkoen genitalen mutilazioa.**



## 1.3. ABIAPUNTUA. DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK

2018an "Sakanako Mankomunitateko Berdintasun Planerako diagnostikoa" egin zuen Euala Aholkularitzak Sakanako Mankomunitatearen enkarguz, eta hainbat datu argitara ekarri ditu.

Sakanako 20.439 biztanleetatik 9.929 emakumeak dira, eta 10.510 gizonak, eta batz besteko adina 45 urtekoa. Mendekotasun tasari erreparatuz, Sakanako batz bestekoa Nafarroakoa baino 7 puntu altuagoa dela ikus dezakegu. Kontrara gertatzen da biztanleria aktiboarekin, 5 puntu azpitik baitago. Aurrerago ikusiko dugunez, emakumeek zaintza lanei eskaintzen dieten denbora handiagoa izanik eta langabezia tasa altuagoak dituztela aintzat hartuz, datuok esanguratsuak dira.

### SEXUAREN ARABERA BANATUTAKO POPULAZIOA:

	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Guztira	9929	10510	20439


### SAKANDARREN BATZ BESTEKO ADINA ETA MENDEKOTASUN TASA:

	Adinaren batz bestekoa	Mendekotasun tasa
Sakanako batz bestekoa	45	63,37

### BIZTANLERIA AKTIBOA:

	Nafarroan	Sakanan
Biztanleria aktiboa	77,1	71,9

### SAKANAKO BIZTANLERIA ADIN AKTIBOAN



Iturria: Nastat

## BERDINTASUN ARLOKO ESKU HARTZE EREMUAK

### • BERDINTASUNAREN ALDEKO TOKIKO GOBERNANTZA ETA GENERO ZEHARKAKOTASUNA

2018an egindako diagnostikoan nabarmendu zen **Sakanarako Berdintasun politikak bultzatzeko egitura kolektiboak sendotzearen beharra eta ondorioz sortu zen Mank-eko zerbitzu berria.**

Honela, Sakanan egun bi Berdintasun Zerbitzu daude:

- Altsasuko Udaleko Berdintasun Zerbitzua, 1993an sortua.
- Sakanako Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzua, 2019ko apirilean sortua.

Altsasuko Berdintasun Zerbitzua bertako berdintasun politikak garatzeaz arduratzea eta Mank-eko Zerbitzuak aldiz gainontzeko 14 herriei eskaintzen die zerbitzua.

### 2018an egindako Diagnostikotik ateratako Berdintasun irizpideak:

- Sexuaren arabera banatutako datuak ez dira sistematikoki jasotzen.
- Deialdi guztiek (Diru-laguntzak, lehiaketak eta kontratazio berriak) bere oinarrietan ez dute genero ikuspegia kontuan hartzen.
- Emakumeen parte-hartzea bermatzeko ez dira sistematikoki neurri zuzentzaileak ezarri.
- Gizon eta emakumeen behar eta interes ezberdinak ez dira sistematikoki kontuan hartzen.

## EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA

Datuak: (Jarain.app euskarrirako landutako datuak)

### • Sakanan azken 3 urteetan izandako salaketak.

Urtea	Salaketa
2016	29
2017	45
2018	37
<b>Guztira</b>	<b>111</b>

• **Salaketa** jarri zuten emakumeen % 80,18ak Espainiar Estatuko **jatorria** dute.

• Biktima eta erasotzaile gehien pilatzen den **adin tartea**:

Urtea	Biktima	Erasotzaileak
2016	25-29	40-44
2017	25-29	30-34
2018	40-44	40-44



- **2017an 18 emakumek eta 2018an Sakanako 20 emakumek** erabili dute Genero Indarkeria jasaten duten emakumeei arreta integrala emateko lan taldea **(GEAI)** Zerbitzua.

2018an "Sakanako Mankomunitateko Berdintasun Planerako diagnostikoa" egin zuen Equala Aholkularitzak Sakanako Mankomunitatearen enkarguz, eta hainbat datu argitara ekarri ditu. Hala nola, indarkeria matxistaren alorrean Sakanan ezjakintasun eta isiltasun handia dagoela, gizonezkoen erantzuna eskasa dela eta herrietan gaia lantzeko premia dagoela. Halaber azaleratu da herri txikietan ere, indarkeria matxistaren inguruko isilkeria eta tabua dagoela eta gaia lantzerantz gerturatzeko arazoak. Prebentzioa eta sentsibilizazioari dagokionean diagnostikoak agerian utzi du haur eta gazteen arteko sentsibilizazioa lantzeko premia.

Udalerrian genero indarkeria (fisikoa, psikologikoa, sexuala edota ekonomikoa) deuseztatzea lehentasuna izan beharko litzatekeen galdetuta, adostasun maila altua adierazi da: gizonen %58 eta emakumeen %66.

Proposatutako ekintza zehatzen artean, Indarkeria matxistaren aurkako protokoloa lantzea lehenetsi da. Dauden baliabideen egiazko koordinazioa ahalbidetuz, horretarako egokienak diren mekanismoak sortuz. (Protokoloaren aurre lanketa 2019ko maiatzean hasi zen eta 2020an jarraipena izango du)

## ZAINTZA, ERANTZUNKIDETASUNA ETA KONTZILIAZIOA

2018an egindako diagnostikoan ondorioztatu da, denboraren erabilerari dagokionean, emakumeek denbora gehiago erabiltzen dutela etxeko lanak eta zaintzak egiteko.

Etxeko zein zaintza lanak burutzen ematen dituzten orduen kalkulua eskatzean, emakumezkoek gizonen baino ordu gehiago ematen dituztela ondorioztatu dezakegu, ondorengo taula behatuz:

Emakumezkoa	Gizonezkoa
21,38	13,25

Eskualdean zaintzaren etika eta eginkizunak erantzunkidetasunez betearazteko programak martxan jartzea du helburu 3. esku hartze arlo honek.



## EMAKUMEEN AHALDUNTZEA, PARTE HARTZE SOZIO-POLITIKOA ETA BALIOEN ERALDAKETA

Emakumeen ahalduntze, parte hartze soziopolitiko eta balioen eraldaketan fokua jarriz, herriko kolektiboetan parte hartzeaz galdetu da. Erantzunek agerian utzi dute emakume gehiagok eman dutela ezetza, %49ak hain zuzen ere. Hala ere, kasuz kasu ikusita, zenbait esparrutan emakumeen parte hartzea gizonena baino handiagoa dela dirudi: gazte asanblada, herriko lanak, elkarre kulturaletan eta jubilatuetan kasu, baina bizilagun artekoan eta zinegotzi lanetan ez. Jarduera politikoetan, kirolean eta udaletan ordea, gizon presentzia handiagoa da Sakanan

### Parte hartze politikoa

Udaletako kargu publikoak - 2019ko Udal Hauteskundeak


	Zinegotziak	EMAKUMEAK	GIZONAK
GUZTIRA	108	39	69

Alkateak: 4 emakume eta 10 gizon

2018an egindako diagnostikoak agerian utzi zuen beharrezkoa zela **emakumeen ahalduntze pertsonala eta kolektiboa sustatuko duten baldintzak sortzea** eskualdeko bizitza soziopolitikoan duten partaidetza gero eta indartsuagoa izan dadin.

Bestalde, Sakana zonalde industrialia izanik, eta sektore hau maskulinizatua dagoela kontuan hartuta, emakumeek enplegua aurkitzeko zailtasun handiak dituztela ondorioztatu zen. Esparru honetan, segregazio horizontal zein bertikala nabaria zela azpimarratuz. Hala adierazten du, besteak beste, Altsasuko langabezia tasaren bilakaerak:

## ALTSASUN ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIAREN BILAKAERA



Iturria: Nastat

2018ko ondorioak:

- Jai giroa maskulinoa da (musika, oholtza, jarrerak...)
- Eskolaz kanpoko jarduerak oso bideratuta daude sexuaren arabera
- Pertsona adinduen artean emakumeen eta gizonen arteko banaketa gertatzen da aisialdian

- Emakume migranteekin harremantzeko zailtasunak
- Sindikalgintza oraindik ere maskulinoa
- Kirol munduan emakumeen presentzia oraindik baxua da

BERDINTASUNARI BURUZKO **17/2019 FORU LEGEA**n herritar aktiboak, ahalduntzea eta parte-hartzea aipatzen dira, eremu sozialarekin, politikoarekin, kirolarekin eta informazio teknologien eta gizarte digitalaren eremuekin lotutako neurriak adierazita.

Honela, Emakumeen ahalduntzea eta parte hartze soziopolitikoaren sustatzea esku hartze eremu garrantzitsua izango da Sakanan.



## 1.4. SAKANAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO I. PLANA

Berdintasunerako plana ekintza konkretu batzuen bitartez emakume eta gizonen artean berdintasuna lortzeko tresna bat da, eta berdintasunaren aldeko lana estrategia baten barruan txertatzeko, ekintzak sistematizatu eta emaitzak optimizatzeko balio du.

Sakanako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana parte hartzeko prozesu baten bidez gauzatu da, eta bere diseinuan Mankomunitateko Zerbitzuek, Udalek, herritarrek eta eragile ezberdinek parte hartu dute.


Planak helburu orokor bezala dauka, alde batetik, Mankomunitateko zein Udaletako kudeaketan genero-ikuspegia txertatzea, eta, beste alde batetik, Sakanako emakumeen aukera eta eskubide berdintasuna bermatzea. Xede hauek oinarritzat hartuta, Plana ondorengo lau arloen gainean egituratu da:

- Tokiko gobernantza eta genero zeharkakotasuna.
- Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak.
- Bizitzaren jasangarritasunerako itun sozial berria.
- Emakumeen ahalduntzea, parte hartze sozio-politikoaren eta jendartearen baloreen aldaketa.

Bestalde, emakume eta gizonen arteko Berdintasunerako I. Planak, Sakanako Mankomunitateko Plan Estrategikoak (2020-2025) zehazten dituen ildo estrategikoak ere landuko ditu.

## METODOLOGIA

Sakanako Berdintasunerako I. Plana diseinua prozesu parte hartzaile baten bidez egin da. Parte hartzeko prozesu honen bidez hainbat helburu lortu nahi dira: alde batetik, emaitzarekin zerikusia dutenak; hau da, BPren helburu eta ekintzak zehaztea. Eta beste alde batetik, berriz, prozesuarekin lotutako helburuak.



## 1. ETA 2. FASEAK.

Sakanako Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzuak 2019ko urrian ekin zion etorkizuneko Berdintasunerako Planaren diseinuaren lanketari. Honela, Berdintasun Batzordea sortu eta ondorengo hiru hilabetetan, ahalduntze saioen bidez, gaiaren inguruko prestakuntza eskaini zaie Batzordeko partaideei. Bestalde, saio hauetan BPren lehen hezurdura edo egitura landu eta adostu da batzordekideekin.

Ahalduntze saio hauen helburuak honakoak izan dira:

- Eragile desberdinak elkar ezagutzea.
- Talde kohesioa lantzea.
- Berdintasunaren inguruan sentsibilizatzea.
- Berdintasunaren inguruko oinarrizko hainbat kontzeptu barneratzea.
- Berdintasun Planaren hezurdura ezagutzea eta ekarpenak luzatzea.

Honela, bigarren fase honen bukaerarako Planaren lehen zirriborroa diseinatu da.

Ahalduntze saio hauen partaidetza honakoa izan da:

9 herri ezberdinetako 12 zinegotzi (emakumeak).

## 3.FASEA

### PARTE HARTZE SAIOAK

3. fase honetan, metodologia parte-hartzailearen bidez, eraldaketa eta programazio faseari ekin zaio. Honela, parte-hartze saioetan gogoeta eta eztabaida kolektiboaren bidez Planaren irizpideak, lehentasunak, baldintzak eta programak definitu ahal izan dira.

Saio hauen egitura honako hau izan da:

- Berdintasun gaien inguruko oinarrizko prestakuntza.
- Berdintasunerako Planaren hezurdura aurkeztu.
- Talde-lana, Planerako ekarpenak jasotzeko

Parte-hartze saioak Idoia Lekue, berdintasun aholkulariak, eta Mankomunitateko Berdintasun teknikariak gidatu dituzte, eta 3 orduko iraupena izan dute. Parte hartze saioetarako diagnostikotik ateratako ondorio eta proposamen nagusiak hartu dira oinarri gisa.

Planaren lanketan guztira 76 pertsonen parte hartu dute. 62 emakumek eta 14 gizonen.

	<b>Bilera kopurua</b>	<b>Parte hartzaileak</b>	<b>Emakumeak</b>	<b>Gizonak</b>	<b>GUZTIRA</b>
<b>Berdintasun Batzordea</b>	3	14 Udaletako berdintasun zinegotziak	12		12
<b>Alkate eta zinegotziak</b>	1	14 Udaletako alkate zinegotziak	10	9	19
<b>Udal langileak</b>	1	Gizarte Zerbitzuetako teknikariak, Idazkariak, Kultur teknikariak, administraria, liburuzaina	15	2	17
<b>Mankomunitatea</b>	1	Mankomunitateko teknikariak	8		8
<b>Herritarrek</b>	1	Guraso elkarteak, emakume taldeak, kirol elkarteak, sindikatuak	10	1	11
<b>Tokiko garapena</b>	1	Garapen Agentzia, Cederna Garalur, Zerbitzu Orokorrak	7	2	9
<b>GUZTIRA</b>	<b>8</b>		<b>62</b>	<b>14</b>	<b>76</b>

## 4.FASEA

### **FOCUS GRUP edo kontrasterako saioak**

“Focus grup” bat egin da Berdintasun Batzordeko kide, berdintasun arduradun eta adituekin. Focus Grup honen helburua izan da aurretik landutako Berdintasunerako Planaren egitura eta mamia kontrastatzea.

Prozesuari itxiera emateko parte hartzaile guztiei Planaren zirriborroa eta ekarpenak egiteko aukera eskaini da eta Zerbitzu eta eragileen 6 ekarpen berri jaso dira.

## 5.FASEA. ONARPENA ETA JENDARTERATZEA

Sakanako Mankomunitateko Batzar Orokorrak onartu ondoren, herritarrei eta eragileei bideratutako aurkezpen-saioak egingo dira, eta saio hauetan ekarpenak jasotzeko aukera izango da.

• **KRONOGRAMA EDO LAN PROZESUA**

2019		
URRIA-AZAROA ABENDUA	1. fasea	Berdintasun batzordea sortu
	2. fasea	Ahalduntze tailerrak eta BP hezurdura adostu
2020		
URTARRILA	3. fasea	<b>Berdintasun Planaren diseinuarekin hasi</b>
		<b>Parte hartze saioak</b>
OTSAILA	3. fasea	Alkateak eta bestelako zinegotziak
		Udal teknikariak eta Gizarte Zerbitzuak
		Mankomunitateko langileria
		Herritarrak, elkarteak, Apymak, ...
		Tokiko Garapena-Garapen agentzia eta Ceder-na Garalur, ...
MARTXOA-APIRILA	3. fasea	Planaren erredakzioa
MAIATZA-EKAINA	3. fasea	<b>1. zirriborroaren kontrastea</b>
		Focus grup
		On-line bidezko parte hartzea
EKAINA	5. fasea	Azken dokumentua onartu eta jendarteratu

## **PROZESUAREN KOMUNIKAZIOA**

Prozesuan zehar garrantzi handia eman zaio komunikazioari eta zenbait komunikazio ekintza egin dira herritar eta eragileen parte hartzea bermatzeko.

- Prentsaurrekoa 2. fasea amaitu eta 3. fasea hasi aurretik.
- Sakanako zinegotzi guztiei gutun pertsonalizatuak.
- Interes taldearen araberako gonbidapen pertsonalizatuak.
- Parte hartze saioen berri ematen zuten euskarri ezberdinak (Kartelak, bideoa, ...).
- Tokiko komunikabideetara bidalitako prentsa oharrak.

## **PROZESUAN KONTUAN HARTUTAKO PRINTZIBIOAK**

**Parte hartzea:** Eraikuntza kolektiboaren bidez eragile, herritar eta erakundeen parte hartzea.

**Elkarlana:** interes talde guztiekin elkarlanean oinarritutako harremanak

**Malgutasuna:** Prozesuaren egokitzapenak egin dira egoerak hala behartuta.

**Hezkuntza eta eraldaketa prozesua:** Azken emaitzaz gain prozesuari ere garrantzia eman nahi izan zaio. Eraldaketa prozesu guztiak hezkuntza prozesu dira eta honi ere tarte eskaini zaio. Horregatik, Berdintasun batzordeko kideen ahalduntze saioek berebiziko garrantzia hartu zuten prozesuaren hasieran.

**Komunikazioa:** Arreta deitu, eztabaida piztu eta herritarrak prozesuarekin identifikatu. Inplikazio eta motibazioa prozesuaren hasieratik lortu behar da.

Portaera eredua:

**EZAGUTU** (Informazioa jaso eta eman) – **BARNERATU** (Identifikazioa piztu,emozioa) **EKIN** (Ekintza, parte hartzea.)

**Hizkuntza irizpideak:** Parte hartze prozesu osoa euskaraz egin da eta euskaraz ez dakien jendeari bere hizkuntzan hitz egiteko aukera eskaini zaio.

**Zaintza zerbitzua:** Parte hartze saioetarako zaintza zerbitzua eskaini zen.



## 2. ZATIA ESKU HARTZE ARLOAK

## ESKU HARTZE ARLOAK, PROGRAMAK, HELBURUAK ETA NEURRIAK

Sakanako emakume eta gizonen arteko Berdintasunerako I. Plana 4 esku hartze arlotan egituratu da.

1. ESKU HARTZE ARLOA . TOKIKO GOBERNANTZA ETA GENERO-ZEHARKAKOTASUNA
2. ESKU HARTZE ARLOA: INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK
3. ESKU HARTZE ARLOA. BIZITZAREN JASANGARRITASUNERAKO ITUN SOZIAL BERRIA
4. ESKU HARTZE ARLOA: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA, PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA ETA JENDARTEAREN BALOREEN ALDAKETA

## BERDINTASUN PLANERAKO IRIZPIDEAK

**Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko beharrezkoa da berdintasunerako politika publiko guztiak koordinatzea, hots, helburu berak eta estrategia bateratua ezartzea administrazio guztietan, eta horrek gure kasuan esan nahi du Foru Komunitatearen Administrazioaren eta Toki Administrazioen lana bateratu beharra dagoela.**

Aurretik esan bezala, Plan hau “Genero-berdintasuna Nafarroako Toki Entitateetan. Udaletako Berdintasun Alorretako lana planifikatu, kudeatu eta ebaluatzeko ibilbidea” dokumentua jarraituz burutu da eta bertan zehazten da berdintasun alorraren urteko dedikazioaren zer portzentaje bideratuko den esku hartzeko eremu bakoitzaz arduratzeko.

1. esku hartze arloa . Tokiko gobernantza eta genero-zeharkakotasuna	% 50
2. esku hartze arloa. Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak	%15
3. esku hartze arloa. Bizitzaren jasangarritasunerako itun sozial berria	%15
4. esku hartze arloa. Emakumeen ahalduntzea, parte-hartze soziopolitiko eta jendartearen baloreen aldaketa	% 20

### 2.1. ESKU HARTZE ARLOA. TOKIKO GOBERNANTZA ETA GENERO-ZEHARKAKOTASUNA



Tokiko Gobernantza eta genero zeharkakotasuna esku hartze arloko helburu nagusia, eskualdeko berdintasun politikak garatzeko neurriak jarritz, genero ikuspegia eskualdeko politika eta ekintza guztietan txertatzea da.

Genero berdintasunaren ikuspegia txertatzea ez da modu isolatuan egin behar, hau da, ez da esparru bakar bati loturikoa, sektore desberdinak inplikatu behar ditu (Alkatetzak eta talde politikoak, udal idazkaritzak, hainbat esparrutako ordezkariak, langileen lege-ordezkaritza etab.). Azken finean, espa-

rru guztietako langileen ardura baita genero ikuspegia txertatzen joatea, politika publikoen diseinuan, plangintzan eta ebaluazioan.

**17/2019 FORU LEGEA, apirilaren 4koa, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzkoa-ak honela definitzen du “Genero-zeharkakotasuna”:** prozesu politikoen antolaketa, hobekuntza, garapena eta ebaluazioa, halako moduz non genero-berdintasunaren ikuspuntua txertatzen baita politika guztietan, maila guztietan eta etapa guztietan.

**17/2019 FORU LEGEA, apirilaren 4koa, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko legeak, bere 12. artikuluan zehazten du Toki entitateek beren eskumenak betetzean txertatuko dutela emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa.**

b) Beraien jarduketa guztietan genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna txertatzeko behar diren tresnak ezartzea.

ESKU HARTZE ARLOA		PROGRAMA	HELBURUA	NEURRIAK
<b>TOKIKO GOBERNANTZA ETA GENERO ZEHARKAKOTASUNA</b>  	1	ESKUALDEKO BERDINTASUN POLITIKAK BULTZATU, GARATU, JARRAITU ETA EBALUATZEKO <b>EREDUA</b>	Sendotasuna ematea eskualdeko berdintasun politikak bultzatu, garatu, jarraitu eta ebaluatzeke ereduari.	13
	2	BERDINTASUNAREN ALDEKO GOBERNANTZA HOBEBIA LORTZEKO BEHARREZKO <b>EGITURAK eta KOORDINAZIOA</b>	Toki-administrazioak plan honen garapena bermatuko duten egiturak izatea eta hauen arteko koordinazioa ematea.	11
	3	<b>TREBAKUNTZA</b> TEKNIKO ETA POLITIKOA GENERO-MAINSTREAMINGAREN ESTRATEGIA TXERTATZEKO TOKI ENTITATEAN	Toki-administrazioko teknikariek eta ordezkari politikoek berdintasun-ikuspegia txertatzea beren jardueretan.	12
	4	<b>LAN-PROZEDURAK</b> EMAKUMEEN ETA GIZONEN TRATU ETA AUKERA BERDINTASUNERAKO PRINTZIBIOAREN ARABERA	Toki-administrazioko prozedurek genero-ikuspegia txertatzea.	13
	5	<b>ESKUALDEAREN GARAPEN JASANGARRIA</b> GENERO-BERDINTASUNA KONTUAN HARTUTA	Eskualdeko garapen estrategiak genero-berdintasunean eragin positiboa izatea.	14

## 2.2. ESKU HARTZE ARLOA: INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK




Emakume eta gizonen arteko botere desoreken adierazpen larrienetakoa da indarkeria matxista.

### 14/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egitekoa-k honela definitzen du emakumeen kontrako indarkeria:

*“emakumeen kontrako indarkeria da emakumea izateagatik emakumeen kontra bideratzen dena edo haiengan proportziorik gabeko eragina duena, genero diskriminazioaren agerpen gisa eta emakumeentzako kalte edo oinaze fisikoa, psikologikoa, sexuala edo ekonomikoa dakarrena edo ekar deza-keena, mehatxuak, beldurrarazteak eta hertsatzeak edo askatasun-gabetze arbitrarioak barne hartuta, bizitza publikoan nahiz pribatuan gertatzen direnak”.*

Sakanako Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzuak esku hartze arlo hau landuko du eskualdeko gainontzeko eragile eta zerbitzuekin batera dauden baliabideen egiazko koordinazioa ahalbidetuz, horretarako egokienak diren mekanismoak sortuz. Eta bestetik herritarren prebentzioa eta sentsibilizazioa landuz.

ESKU HARTZE ARLOA		PROGRAMA	HELBURUA	NEURRIAK
<b>INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK</b>  	6	EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN <b>DETEKZIOA ETA ARRETA</b> ES-KUALDEAN	Sakana mailan dauden baliabideen koordinazioa ahalbidetzea eta indarkeria sufritu duten emakumeei arreta egokia eskaintzea horretarako egokienak diren mekanismoak sortuz.	13
	7	<b>INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK</b>	Emakumeenganako indarkeriaren inguruko sentsibilizazioan eta prebentzioan lan egitea.	13

## 2.3. ESKU HARTZE ARLOA. BIZITZAREN JASANGARRITASUNERAKO ITUN SOZIAL BERRIA




**Sakana bizigarria eta Bizitzaren jasangarritasuna ardatz izango dituen itun sozial berria izango da 3. esku hartze arloak landuko duena.**

**Emakumeek pairatzen duten berdintasun falta, giza eskubideen funtsa ere urratzen duena, sustri sakoneko genero desberdintasunaren egiturazko izaerari zor zaio; horren atzean genero-estereotipo eta rolak daude, oraindik ere markatuak eta bereizketa eta ospe sozial desberdinen eragile direnak, eta botere harreman ez-parekoei eusten diete.**

Egoera horri amaiera emateko, beharrezkoa da gizartea aldatzeari ekitea, batetik, genero-arrakalak ezabatzeko (lansariena edo segregazio bertikal nahiz horizontala, kasu), eta bestetik, gainditzeko gaur egun dugun defizita erantzunkidetasunari eta emakumeen parte-hartze sozial eta politikorako trabei dagokienez. Berdintasun substantiboan aurrera egiteko, eredu soziala aldatu beharra dago, zeinak bizitzaren jasangarritasunaren balioa nabarmenduko baitu, eta genero-estereotipoak eta -rolak puskatuko. Horretarako, ibili beharreko bidean gehiago egin behar da, baina, horrekin batera, egiteko moduak aldatu behar dira, eta emakumeen eskubideak errealitatea izatea lortu.

Bistan da, genero-rolak bizirik dirautela, eta horrek lotura duela sexuaren arabera lan-banaketa-ekin, lan produktiboa (ondasunak eta zerbitzuak ordainsari baten truke sortzen dituzten jarduerak biltzen dituen) eta lan erreproduktiboa (sarrerarik sortzen ez duten jarduerak, baina, aldi berean, bizitzarako beharrezkoak ez ezik ezinbestekoak ere badirenak) bereizten dituelako

**Bizitzaren jasangarritasunaren kontzeptuak, ordea, bi esparruak hartzen ditu bere baitan, eta biak elkarren menpe jartzen ditu, biek ala biek funtzio soziala eta ekonomikoa betetzen dituztelako gizartearentzat. Pertsona guztiek izan dezakete zaintzaren beharra bizitzaren etaparen batean, eta lan guztiek dute balio ekonomikoa, ordainpekoak izan nahiz ez.** Alde horretatik, berebiziko garrantzia du administrazio publikoek bitartekoak jartzeak pertsona guztien bizitzaren jasangarritasunari laguntzeko, eragile sozialak eta ekonomikoa ahaztu gabe, aldaketaren alderdi aktiboa diren aldetik, antolakundeetan balio eta eredu berrien sortzaile.

ESKU HARTZE ARLOA		PROGRAMA	HELBURUA	NEURRIAK
<b>BIZITZAREN JASANGARRITASUNERAKO ITUN SOZIAL BERRIA</b>  	8	ZAINZA-LANEI BALIOA EMATEA, BIZITZARI EUSTEKO FUNTSEZKOAK DIREN ALDETIK	<b>Balio aldaketa sustatzea</b> , bizitzaren jasangarritasuna bermatzeko behar den zaintzaren erantzunkidetasuna eta zaintzaren etika bultzatuz.	8
	9	ZAINKETA JARDUN DUIN ETA BIDEZKOA ESKUALDEAN	<b>Zaintzen jardun duin eta bidezkoa</b> bermatzea bai familia esparruan bai maila profesionalean.	5




## 2.4. ESKU HARTZE ARLOA: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA, PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA ETA JENDARTEAREN BALOREEN ALDAKETA

Esku hartze arlo honek ezartzen du beharrezkoa dela **emakumeen ahalduntze pertsonala eta kolektiboa sustatuko duten baldintzak sortzea** eskualdeko bizitza soziopolitikoan duten partaidetza gero eta indartsuagoa izan dadin. Honekin lotuta, eskualdean **balioen aldaketa sustatzea rol eta estereotipoak deuseztatuz**.

### 17/2019 FORU LEGEA



IV. TITULUKO I. kapituluaren herritar aktiboak, ahalduntzea eta parte-hartzea aipatzen dira, eremu sozia-  
larekin, politikoarekin, kirolarekin eta informazio teknologien eta gizarte digitalaren eremuekin lotutako  
neurriak adierazita.


Jardute printzipioa d) Emakumeen ahalduntzea. Haien autonomia eta parte-hartzea sustatzea, justizia  
sozialean aurrera egiteko eta berdintasuna lortzeko estrategia gisa. 28. artikulua. Landa ingurune  
emakumeak ahalduntzea.

ESKU HARTZE ARLOA		PROGRAMA	HELBURUA	NEURRIAK
<b>AHALDUNTZEA, PARTE HARTZE SOZIO-POLITIKOA ETA JENDARTEAREN BALO- REEN ALDAKETA</b> 	10	EMAKUMEEN <b>AUTONOMIA eta AHALDUNTZEA</b>	Emakumeen ahal- duntze pertsonala eta kolektiboa sustatzeko neurriak sustatzea eta hauen autonomia sozio ekonomikoa bultzatzea	16
	11	EMAKUMEEN <b>PARTAIDETZA SOZIO POLITIKOA</b>	Emakumeen partaide- tza soziopolitikoak bultzatu, Sakanako emakumeak eskubi- de osoko solaskide sozio-politikoak izateko baldintzak sortuz.	5
	12	<b>ERROTIK SAKANA PAREKI- DEA. JENDARTEAREN BALO- REEN ALDAKETA ETA BERDIN- TASUNAREN ALDEKO SAKANA</b>	Sakanan balioen alda- keta sustatzea rol eta estereotipoak deusez- tuz. Berdintasunaren al- deko eskualdea izateko neurriak hartuz.	18
	13	HERRI <b>HEZKIDETZAILEAK</b>	Hezkidetza eta tratu ona ardatz duten herri hezitzaile izateko oina- rriak jartzea	10

#### 4 ESKU HARTZE ARLO, 13 PROGRAMA ETA 151 NEURRI

	ESKU HARTZE ARLOA	PROGRAMA	NEURRIAK
	1	5	63
	1	2	26
	1	2	13
	1	4	49
<b>GUZTIRA</b>	4	13	151

ESKU HARTZE ARLOA		PROGRAMA	HELBURUA	NEURRIAK
<b>TOKIKO GOBERNANTZA ETA GENERO ZEHARKAKOTASUNA</b>  	1	ESKUALDEKO BERDINTASUN POLITIKAK BULTZATU, GARATU, JARRAITU ETA EBALUATZEKO <b>EREDUA</b>	Sendotasuna ematea eskualdeko berdintasun politikak bultzatu, garatu, jarraitu eta ebaluatzeko ereduari.	13
	2	BERDINTASUNAREN ALDEKO GOBERNANTZA HOBEA LORTZEKO BEHARREZKO <b>EGITURAK eta KOORDINAZIOA</b>	Toki-administrazioak plan honen garapena bermatuko duten egiturak izatea eta hauen arteko koordinazioa ematea.	11
	3	<b>TREBAKUNTZA</b> TEKNIKO ETA POLITIKOA GENERO-MAINSTREAMINGAREN ESTRATEGIA TXERTATZEKO TOKI ENTITATEAN	Toki-administrazioko teknikariek eta ordezkari politikoek berdintasun-ikuspegia txertatzea beren jardueretan.	12
	4	<b>LAN-PROZEDURAK</b> EMAKUMEEN ETA GIZONEN TRATU ETA AUKERA BERDINTASUNERAKO PRINTZIBIOAREN ARABERA	Toki-administrazioko prozedurek genero-ikuspegia txertatzea.	13
	5	<b>ESKUALDEAREN GARAPEN JASANGARRIA</b> GENERO-BERDINTASUNA KONTUAN HARTUTA	Eskualdeko garapen estrategiak genero-berdintasunean eragin positiboa izatea..	14
<b>INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK</b>  	6	EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN <b>DETEKZIOA ETA ARRETA</b> ESKUALDEAN	Sakana mailan dauden baliabideen koordinazioa ahalbidetzea eta indarkeria sufritu duten emakumeei arreta egokia eskaintzea horretarako egokienak diren mekanismoak sortuz.	13
	7	<b>INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK</b>	Emakumeenganako indarkeriaren inguruko sentsibilizazioan eta prebentzioan lan egitea.	13
<b>BIZITZAREN JASANGARRITASUNERAKO ITUN SOZIAL BERRIA</b>  	8	<b>ZAINTZA-LANEI BALIOA EMATEA, BIZITZARI EUSTEKO FUNTSEZKOAK DIREN ALDETIK</b>	<b>Balio aldaketa sustatzea</b> , bizitzaren jasangarritasuna bermatzeko behar den zaintzaren erantzunkidetasuna eta zaintzaren etika bultzatuz.	8
	9	<b>ZAINKETEN JARDUN DUIN ETA BIDEZKOA ESKUALDEAN</b>	<b>Zainketen jardun duin eta bidezkoa</b> bermatzea bai familia esparruan bai maila profesionalean.	5

<b>AHALDUNTZEA, PARTE HARTZE SOZIO-POLITIKOA ETA JENDARTEAREN BALOREEN ALDAKETA</b>  	10	<b>EMAKUMEEN AUTONOMIA eta AHALDUNTZEA</b>	Emakumeen ahalduntze pertsonala eta kolektiboa sustatze-ko neurriak sustatzea eta hauen autonomia sozio ekonomikoa bultzatzea	16
	11	<b>EMAKUMEEN PARTAIDETZA SOZIO POLITIKOA</b>	Emakumeen partaidetza soziopolitiko-a bultzatu, Sakanako emakumeak eskubide osoko solaskide sozio-politikoak izateko baldintzak sortuz.	5
	12	<b>ERROTIK SAKANA PARE-KIDEA. JENDARTEAREN BALOREEN ALDAKETA ETA BERDINTASUNAREN ALDEKO SAKANA</b>	Sakanan balioen aldaketa sustatzea rol eta estereotipoak deuseztuz. Berdintasunaren aldeko eskualdea izateko neurriak hartuz.	18
	13	<b>HERRI HEZKIDETZAILEAK</b>	Hezkidetza eta tratu ona ardatz duten herri hezitzaile izateko oinarriak jartzea	10



ESKU HARTZE ARLOA: TOKIKO GOBERNANTZA ETA GENERO ZEHARKAKOTASUNA							
1 PROGRAMA: ESKUALDEKO BERDINTASUN POLITIKAK BULTZATU, GARATU, JARRAITU ETA EBALUATZEKO EREDUA							
PROGRAMAREN HELBURUA: SENDOTASUNA EMATEA ESKUALDEKO BERDINTASUN POLITIKAK BULTZATU, GARATU, JARRAITU ETA EBALUATZEKO EREDUARI.							
KODEA	NEURRIAK	DESKRIBAPENA	ARDURADUNAK ETA LANKIDETZA	KRONOGRAMA			
				2020	2021	2022	2023
G. 1.1	Sakanako I. Berdintasunerako plana martxan jarri eta honen kudeaketa egin.	20-23 iraunaldia izango duen Plana Batzar Orokorrean onartu eta honen kudeaketa eta jarraipena egin.	Berdintasun Zerbitzua Berdintasun Batzordea Lehendakaritza Batzar orokorra Zerbitzu guztiak				
G. 1.2	Tokiko Administrazioiko langileei eta Udaletako zinegotziei Planaren berri eman.	Planaren berri emateko material edo euskarri komunikatiboak sortu eta aurkezpen saioak egin.	Berdintasun Zerbitzua Kudeatzailea Berdintasun Batzordea				
G. 1.3	Berdintasunerako Plana zabaltzeko komunikazio estrategia berrien diseinua, baita berdintasun arloko beste jarduerena ere. Erakunde-ko komunikazio estrategiarekin uztartuta.	Mankomunitateko Komunikazio estrategiarekin uztartuta, Berdintasunerako Planaren komunikazio estrategia garatzea.	Berdintasun Zerbitzua Kudeatzailea Komunikazioa				
G. 1.4	Berdintasun Plana jendarteratzeko aurkezpenak.	Plana herritarrei eta eragileei ezagutzera emateko aurkezpenak egin (Herrietan, ikastetxean, sare sozialak, Kultur aniztasunaren ikuspegia txeratzuz).	Berdintasun Zerbitzua Udalak				
G. 1.5	Eskualdeko berdintasun politiken barne eta kanpoko ikuspena indartzeko Man-eko Web guneko Berdintasun atala zein sare sozialak elikatu eta indartu.	Web guneko Berdintasun atala eta sare sozialak elikatu.	Berdintasun Zerbitzua Komunikazioa				
G. 1.6	Sakanako Udaletako Web gune eta komunikazio kanaletan BP eta Berdintasun politiken presentzia bermatu.	14 Udaletako Web gunean Berdintasun politiken inguruko informazioa emateko bideak erraztu.	Berdintasun Zerbitzua Udalak Berdintasun Batzordea				
G. 1.7	Berdintasun gaia lantzeko komunikazio kanal eragin-korrek sustatu.	Berdintasun gaiak lantzeko komunikazio kanala sortu (sare sozialak, talde birtuala...).	Berdintasun Zerbitzua				
G. 1.8	BP-ren baitan urteroko plangintzak egin eta Berdintasun Batzordean onartu.	Urteroko plangintza Batzordean onartu eta Kalitate sisteman txeratu.	Berdintasun Zerbitzua Kalitatea Kudeatzailea				
G. 1.9	BP-ren urteko ebaluazioa egin eta jendarteratu.	Urteko ebaluazioa egin, hobetze neurriak proposatu eta memoria Batzordean onartu.	Berdintasun Zerbitzua Kalitatea Kudeatzailea				



G. 1.10	Berdintasunerako Planaren ebaluazio jarraia edo sistematizazioa eredu sinplifikatuak eta erakar-garriak erabiliz.	Planaren jarraipena egiteko eta prozesuaren ikuspegia emateko eredu sinplifikatu baten bidez ezagutzera eman.	Berdintasun Zerbitzua Kalitatea Kudeatzailea				
G. 1.11	BP-ren ebaluaziorako arlokako jarraipen fitxak bete. (Arlo eta Zerbitzu ezberdinetan Plana betetzen dela egiaztatzeko).	Jarraipen fitxen sistematizazioa bermatu.	Berdintasun Zerbitzua Mank-eko Zerbitzu guztiak Udalak				
G. 1.12	Eskualdeko BPa herrietara egokitzeko baliabideak eskaini eta Zerbitzua herrietara gerturatzeko bitartekoak jarri.	Herri tipologiaren arabeko bide orriak zehaztu eskualdeko BP kontuan hartuta.	Berdintasun Zerbitzua Udalak				
G. 1.13	Zerbitzua ezagutzera emateko sinergiak bilatu eta Sakanako 14 Udalekin komunikazio eraginkorra mantendu.	Udal arduradunekin komunikazio eraginkorra mantendu eta aholkularitza eskaini.	Berdintasun Zerbitzua Berdintasun Batzordea Lehendakaritza				

#### ADIERAZLEAK

Plana onartu izana  
 Sortutako euskarri kopurua  
 Egindako aurkezpen saio kopurua  
 Komunikazio agerraldi kopurua  
 Itzulpen kopurua  
 Itzulpen kopurua (ahozkoa eta idatzizkoa)  
 Berdintasun atalean publikatutako albiste kopurua  
 Udaletako Web guneetan izandako agerraldi kopurua  
 Informazioa iristen zaien jende kopurua sexuaren arabera banatuta  
 Plangintza egiteko jasotako ekarpen kopurua  
 Aurreko urteko plangintzaren betetze maila  
 Urteroko memoriak  
 Plana eta ekintzen balorazioa  
 Jarduera kopurua  
 Betetako jarraipen fitxa kopurua  
 Jarraipen fitxetan azaltzen den balorazioa  
 Onartutako "bide orrien" kopurua eta hauen jarraipena eta ebaluazioa  
 Aholkularitza eta bilkura kopurua



2 <b>PROGRAMA: BERDINTASUNAREN ALDEKO GOBERNANTZA HOBEA LORTZEKO BEHARREZKO EGITURAK eta KOORDINAZIOA</b>							
<b>PROGRAMAREN HELBURUA:</b> Toki-administrazioak plan honen garapena bermatuko duten egiturak izatea eta hauen arteko koordinazioa ematea.							
KODEA	NEURRIAK	DESKRIBAPENA	ARDURADUNAK ETA LANKIDETZA	KRONOGRAMA			
				2020	2021	2022	2023
G. 2.1	Berdintasun Zerbitzua sendotu.	Berdintasun Zerbitzua egotea eta honen eragina Mankomunitateko jardunean.	Lehendakaria Berdintasun teknikaria				
G. 2.2	Sakanako Mankomunitatean edo eskualdean dauden edo sortzen diren diziplina anitzeko guneetan edo talde estrategikoetan parte hartu.	Zeharlerrotasuna bermatu eskualdean sortzen diren guneetan.	Kudeatzailea Lehendakaria Mank-eko Zerbitzu guztiak				
G. 2.3	Berdintasun alorreko proiektu, programa eta planak aurrera eramateko .	14 Udalak, 3 Giz Zerbitzuak, Sakana Mank, Garapaen Agentzia.	Berdintasun Zerbitzua Udalak, Gizarte Zerbitzuak eta Mank-eko Zerbitzuak				
G. 2.4	Sakanako Udalen arteko koordinazioa bultzatu.	Batzordearen barne arautegia onartu eta honen jarraipena egin.	Berdintasun Zerbitzua Idazkaria Kudeatzailea Berdintasun Batzordea				
G. 2.5	Sakanako Mankomunitateko Berdintasun Batzordea sendotu eta honen arautegia onartu.	Plan Estrategikoaren baitan sortu diren diziplina anitzeko proiektuen jarraipen egin.	Kudeatzailea Lehendakaria Mank-eko Zerbitzu guztiak				
G. 2.6	Mankomunitateko zein bestelako erakundeen arteko elkarlanerako ohitura sustatu eta zeharlerrotasuna eguneroko praktikarekin lotu.	Interesa adierazten duten taldeen aholkularitza egin.	Berdintasun Zerbitzua				
G. 2.7	Beste interes talde batzuk aholkatu eta prestatu. (emakume taldeak edo/ eta talde feministak, elkarteak, etab).	Plan Estrategikoaren baitan sortzen den koordinazio egitura BP ren jarraipena egiteko jarraipen sistema martxan jarri.	Kudeatzailea Lehendakaria Mank-eko Zerbitzu guztiak				
G. 2.8	Sakanako Plan estrategikoaren baitan zein BP ren baitan sortzen den koordinazio egitura adostu.	Mankomunitateko Zerbitzu ezberdinen arteko koordinazioa urteko Plan-gintzak landu aurretik.	Kudeatzailea Lehendakaria Mank-eko Zerbitzu guztiak				
G. 2.9	Mankomunitateko Zerbitzuen Urteko plangintza zehazteko teknikarien arteko koordinazio edo kontrastea egin.	Altsasuko Udaleko eta Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzuen arteko lankidetzak hitzarmena sinatu.	Lehendakaria Altsasuko Udala				
G. 2.10	Eskualdeko bi Berdintasun Zerbitzuen arteko elkarlanerako hitzarmena sinatu.	NBlarekin koordinazio iraunkorra bermatzeko bideak jarri.	Berdintasun Zerbitzua				
G. 2.11	Nafarroako Berdintasunerako Institutuak antolatzen dituen.	Berdintasun Teknikarien sarearekin koordinazio iraunkorra.	Berdintasun Zerbitzua				



## ADIERAZLEAK

Berdintasun Zerbitzuak eragiteko daukan ahalmena  
Parte hartu den bilera kopurua eta gune ezberdin kopurua  
Elkarlanean aurrera eramandako egitasmo kopurua eta hauen balorazioa  
Batzordeko asistentzia  
Egindako ekarpena kopurua  
Elkarlanean aurrera eramandako egitasmo kopurua  
Egitasmo hauen balorazioa  
Izandako aholkularitza kopurua  
Egindako bilera kopurua eta hauen sistematizazioa  
Elkarlanean egindako kontraste bilera kopurua  
Hitzarmena sinatu den  
Parte hartu den bilera kopurua



3 PROGRAMA: TREBAKUNTZA TEKNIKO ETA POLITIKOA GENERO-MAINSTREAMINGAREN ESTRATEGIA TXERTATZEKO TOKI ENTITATEAN							
ROGRAMAREN HELBURUA: Toki-administrazioiko teknikariek eta ordezkari politikoek berdintasun-ikuspegia txertatzea beren jardueretan							
KODEA	NEURRIAK	DESKRIBAPENA	ARDURADUNAK ETA LANKIDETZA	KRONOGRAMA			
				2020	2021	2022	2023
G. 3.1	14 Udaletako eta Mank-eko teknikariek berdintasun gaitan dituzten trebakuntza beharrak zeintzuk diren ezagutzeko azterlana egitea.	Trebakuntza beharren azterketa egin galdetegi baten bidez.	Berdintasun Zerbitzua Mank Zerbitzu guztiak Udalak Gizarte Zerbitzuak Garapen Agentzia				
G. 3.2	Ordezkari politikoek berdintasun gaitan dituzten trebakuntza beharrak zeintzuk diren ezagutzeko azterlana egitea.	Trebakuntza beharren azterketa egin galdetegi baten bidez.	Berdintasun Zerbitzua Berdintasun Batzordea Udaletako ordezkari politikoak				
G. 3.3	Tokiko administrazioiko langileendako (Mankomunitateko zein Udaletako teknikariendako) prestakuntza plan iraunkorra diseinatu eta martxan jarri	Genero-ikuspegi integratua txertatzeko trebakuntza plana.	Berdintasun zerbitzua Kudeatzailea				
G. 3.4	Tokiko administrazioiko langileei genero-ikuspegi integratua txertatzeko aholkua emateko bitartekoak jarri.	Genero-ikuspegi integratua txertatzeko trebakuntza plana.	Berdintasun zerbitzua				
G. 3.5	Eskualdeko ordezkari politikoendako prestakuntza plan iraunkorra.	Genero-ikuspegi integratua txertatzeko trebakuntza plana diseinatu eta martxan jarri.	Berdintasun zerbitzua				
G. 3.6	Ordezkari politikoei genero-ikuspegi integratua txertatzeko aholkua emateko bitartekoak jarri.	Berdintasun Zerbitzutik aholkularitza bermatu.	Berdintasun Zerbitzua Udaletako ordezkari politikoak				
G. 3.7	Hizkera eta irudi ez sexisten inguruko gida liburu bat sortu eta honen zabalkundea egin.	Hizkera barneratzailean trebatzeko tresna eraginkor bat martxan jarri.					
G. 3.8	Berdintasun gaien inguruko Komunikazio sare bat sortu informazioa partekatzeko (artikuluak, liburuak, berriak, estekak, formazioa, etab)		Berdintasun Zerbitzua Kudeatzailea Komunikazioa				
G. 3.9	Udal ordezkari zuzendutako harrera planaren irisgarritasuna aztertu eta eguneratu.	Legegintzaldi hasieran harrera gida banatu eta honen azalpena egin.	Berdintasun Zerbitzua				
G. 3.10	Udal ordezkari berriei Harrera gidaren berri eman.		Berdintasun Zerbitzua				



G. 3.11	Tokiko Administrazioako langileei zuzendutako gidaren irisgarritasuna aztertu eta eguneratu.		Berdintasun Zerbitzua				
G. 3.12	Tokiko administrazioako langile berriei Harrera gidaren berri eman.	Tokiko administrazioako langile guztiei Gida helarazi eta honen aurkezpena egin.	Berdintasun Zerbitzua				

**ADIERAZLEAK**

- Azterketak egitea
- Parte hartu duten langile kopurua
- Parte hartu duten ordezkari kopurua
- Parte hartzaile kopurua sexu aldagaia kontuan hartuta
- Emandako aholkularitza kopurua
- Bitartekoa edo tresna sortzea
- Komunikazio sarea sortzea.
- Informazioa jasotzen duten pertsona kopurua sexu aldagaia kontuan hartuta
- Harrera plana jaso duten zinegotzi kopurua sexu aldagaia kontuan hartuta
- Gida jaso duten langile kopurua sexu aldagaia kontuan hartuta



4 PROGRAMA: LAN-PROZEDURAK EMAKUMEEN ETA GIZONEN TRATU ETA AUKERA BERDINTASUNERAKO PRINTZIOIAREN ARABERA							
PROGRAMAREN HELBURUA: Toki-administrazioko prozedurek genero-ikuspegia txertatzea							
KODEA	NEURRIAK	DESKRIBAPENA	ARDURADUNAK ETA LANKIDETZA	KRONOGRAMA			
				2020	2021	2022	2023
G. 4.1	Komunikazio barneratzaile eta ez-sexistaren inguruko aholkularitza eskaini.	Tokiko Administrazioan komunikazio barneratzaileak bermatzeko aholkuak eman.	Berdintasun Zerbitzua				
G. 4.2	Komunikazio barneratzaile eta ez-sexistaren inguruko irizpideak adostu, ondoren ordenantza bat onartu ahal izateko. (Mank-eko eta Udaletako teknikariei eta ordezkari politikoei ezagutzera eman).	Komunikazio barneratzailearen inguruko irizpideak jaso, etorkizunean ordenantza onartu ahal izateko.	Berdintasun Zerbitzua Idazkaria Berdintasun Batzordea 14 Udalak				
G. 4.3	Hizkuntza inklusiboa kontuan hartuta, dokumentu ofizialen azterketa egin eta beharrezkoa bada hauen aldaketa egin.	Udal eta Mankomunitateko dokumentu ofizialen azterketa egin eta beharrezkoa bada zuzenketak egin.	Berdintasun Zerbitzua Idazkaria 14 Udalak Mank Zerbitzu guztiak				
G. 4.4	Komunikazio barneratzaile eta ez-sexistaren inguruko irizpideak kontuan hartuta, urtero betetze mailaren azterketa egin.	Betetze mailaren azterketa eta hobetzeko proposamenak egin.	Berdintasun Zerbitzua Idazkaria 14 Udalak				
G. 4.5	Datu bilketa zein azterlan guztietan sexuaren arabera datuak sistematikoki jasotzeko prozedura zehaztu eta baliabide eta estrategiak eskaini, urtero hauen jarraipena eginez.	17/2019 FL-ak ezartzen duen bezala, sexu aldagai sistematikotasunez sartzeko, egiten diren estatistika, inkesta eta datu bilketa guztietan.	Berdintasun Zerbitzua Idazkaria 14 Udalak Mank Zerbitzu guztiak				
G. 4.6	Berdintasun klausulak txertatzeko prozedurak martxan jarri. (Diru laguntzak, lan postu deialdiak, hitzarmenak, bekak ) eta hauen betetze mailaren jarraipena egin.	17/2019 FL-ak 18. artikuluan ezartzen duen bezala, Tokiko Administrazioetako laguntza publikoetan berdintasun klausulak txertatzeko prozedura martxan jarriko da.	Berdintasun Zerbitzua Idazkaria 14 Udalak				
G. 4.7	Eskualdeko edozein administrazioan onartzen den arau edo plan onartu aurretik generoaren arabera eraginaren aurreko ebaluazioa egiteko bitartekoak jarri.	Sakanako Tokiko administrazioetako arau, plan, programa eta jarduketak guztietan Genero-eraginaren txostena txertatuko da. Horretarako aurretik baliabideak eskainiz.	Araua sustatzen duen sail edo erakundea Berdintasun Zerbitzua				
G. 4.8	Genero ikuspegia txertatzeko arlo bakoitzaren beharretara egokitutako jarraibideen gida landu, eguneratu eta ezagutzea ematea.	Arlo edo zerbitzu bakoitzera egokitutako jarraibideak adostu eta landu	Berdintasun Zerbitzua Mank-eko Zerbitzuak 14 Udalak				
G. 4.9	Kalitate sisteman genero ikuspegia txertatzeko baldintzak sortu eta honen jarraipena egin.	Mankomunitateko Kalitate Sistema eta Berdintasun Plana uztartu ahal izateko bideak jarri.	Kalitate ard. Kudeatzailea Berdintasun Zerbitzua Mank-eko Zerbitzuak				



G. 4.10	Eskualdeko organo erabakitzaile eta ekitaldi publikoetan parekidetasuna bermatzeko irizpideak ezarri.	Presentzia orekatuari buruzko irizpideak ezartzea lan batzorde iraunkorretan, epaimahaietan,... eta parekidetasuna bermatzeko irizpideak adostea.	Lehendakaria Berdintasun Zerbitzua				
G. 4.11	Emakumeen presentzia bultzatzea Mankomunitateak eta eskualdeko Udalek antolatzen dituzten lehiaketa, sariketa.	Emakumeen parte hartzeko sentsibilizazio ekintzak eta ekintza positiiboak ezartzea.	Berdintasun Zerbitzua Lehendakaria Kudeatzailea				
G. 4.12	Erakunde barneko Berdintasunerako plan bat onartzea, Mankomunitatearen beraren antolaketa eta kudeaketari dagokionez.		Berdintasun Zerbitzua Kudeatzailea Mankomunitateko Zerbitzu guztiak				
G. 4.13	Mankomunitateak eta Udalek onartzen dituzten aurrekontu eta ordenantzetan emakumeengan eta gizonengan duten in-paktua aztertzen hastea.		Berdintasun Zerbitzua Kudeatzailea Idazkaria Kontu hartzailea Udalak				

#### ADIERAZLEAK

Emandako aholkularitza kopurua  
 Onartutako ordenantza kopurua  
 Azterketa egitea eta zuzenketa kopurua  
 Betetze mailaren azterketa egitea eta honen portzentajea  
 Sexu aldagaia kontuan hartuta egin diren azterlan kopurua  
 Datu baseetan sexu aldagai barneratua duten arlo edo zerbitzu kopurua  
 Berdintasun klausulak kontuan hartuta onartutako prozedura kopurua  
 Egindako Genero-eraginaren txosten kopurua  
 Egindako jarraibide gida kopurua eta hauen balorazioa  
 Kalitate sisteman BP kontuan hartu den jarduketa kopurua  
 Parekidetasuna bermatu den organo erabakitzaile kopurua  
 Irizpideak jarri diren edo ez eta hauen betetze maila.  
 Plana onartu izana  
 Parte hartu duten langile kopurua sexu aldagaia kontuan hartuta  
 Eragina aztertzen hasi den. Mank-eko aurrekontu osoarekiko berdintasunerako politikak garatzeko aurrekontua



5 <b>PROGRAMA: ESKUALDEAREN GARAPEN JASANGARRIA GENERO-BERDINTASUNA KONTUAN HARTUTA</b>							
<b>PROGRAMAREN HELBURUA:</b> Eskualdeko garapen estrategiak genero-berdintasunean eragin positiboa izatea							
KODEA	NEURRIAK	DESKRIBAPENA	ARDURADUNAK ETA LANKIDETZA	KRONOGRAMA			
				20 20	20 21	20 22	20 23
G. 5.1	Sakanako garapen estrategian genero ikuspegia txertatzeko laguntza eta aholkularitza eman.	Sakanako garapen estrategiak genero berdintasunean eragin positiboa izateko aholkularitza eskaini.	Berdintasun Zerbitzua Garapen Agentzia Cederna Garalur Bestelako eragile sozio ekonomikoak				
G. 5.2	Sakanako behatoki sozio-ekonomikoaren baitan genero ikuspegia kontuan hartzen duten eskualdeari buruzko txosten eta azterlanak sustatu.	Sakanako behatoki sozio ekonomikoaren baitan egiten diren txosten eta azterlanetan genero ikuspegia txertatu.	Berdintasun Zerbitzua Garapen Agentzia Cederna Garalur Bestelako eragile sozio ekonomikoak				
G. 5.3	Tokiko garapen berdintzailea sustatzen duten beste esperientziak ezagutu eta elkarlana sustatu.	Bestelako esperientziak ezagutu eta elkarlana sustatzeko bideak sortu.	Berdintasun Zerbitzua Garapen Agentzia Cederna Garalur				
G. 5.4	Sakanako enpresa eta bestelako erakundetan Berdintasun Plan honen berri eman.	Berdintasunerako Planaren aurkezpenak egin formatu ezberdinetan.	Berdintasun Zerbitzua				
G. 5.5	Eskualdeko enpresa edo entitate pribatuetan berdintasunerako planak egin daitezten sustatzea. Nafarroako Gobernuak ematen dituen diru laguntzen berri emanez.	Nafarroako Gobernuak enpresetan Berdintasunerako Planak egiteko ematen dituen diru laguntzen berri eman.	Berdintasun Zerbitzua Garapen Agentzia				
G. 5.6	Eskualdeko enpresak berdintasunaren aldeko politikak martxan jartzeko informazioa eta aholkularitza eskaini.		Berdintasun Zerbitzua Garapen Agentzia				
G. 5.7	Emakume eta gizonen arteko Berdintasunerako Plana onartu duten Sakanako enpresak ikustarazi.	Onartuta dauden Berdintasunerako Planen berri eman eta hauek balioan jarri.	Berdintasun Zerbitzua Garapen Agentzia				
G. 5.8	Landa ingurumeneko emakumeen ahalduntzea bultzatzeko neurriak hartu.	17/2019 FL-ak arautzen duen bezala, ahalduntze eskolaren baitan landa eremuko emakumeen errealitatea kontuan hartuko duen bitartekoen sustapena.	Berdintasun Zerbitzua Garapen Agentzia Cederna Garalur				
G. 5.9	Landa eremuan emakumeek nekazaritza eta abeltzaintza sektorean dituzten jakintza tradizionalen transmisio sustatzea eta aitortzea.	Emakumeek nekazaritza eta abeltzaintza sektorean dituzten jakintza tradizionalen transmisio sustatzeko programak martxan jarri Garapen Agentziarekin elkarlanean	Berdintasun Zerbitzua Garapen Agentzia Belardi				



G. 5.10	Informazioaren eta komunikazioen teknologia berriak ezartzearen aldeko ekintzak sustatu berdintasun irizpideak kontuan hartuta.	Genero arloko arrakala digitala murrizteko proiektuak sustatu eta abian jartzea.	Berdintasun Zerbitzua Garapen Agentzia Kultur teknikariak				
G. 5.11	Lanbide orientazio programetan genero ikuspegia bermatu eta ikasketak hautatzean estereotipoak hausteko xedea duten jarduerak sustatu.	Generorik gabeko ikasketak hautua programa martxan jarri Sakanako eragile eta ikastetxeekin elkarlanean.	Berdintasun Zerbitzua Garapen Agentzia Cederna Garalur DBH ikastetxeak				
G. 5.12	Lanbide orientazio programetan genero ikuspegia bermatu eta ikasketak hautatzean estereotipoak hausteko xedea duten jarduerak sustatu.		Berdintasun Zerbitzua Cederna Garalur				
G. 5.13	Arlo teknologiko eta zientifikoetan emakumeak bultzatzeko talde edo ekimenak bultzatzea.	Emakumeak eta STEMak ardatz duen programa eta ekimenak sustatu.	Berdintasun Zerbitzua Garapen Agentzia (Dinabide)				
G. 5.14	Mugikortasun politikan genero ikuspegia txertatzeko aholkularitza eskaini.	Bertan proiektuaren baitan mugikortasunerako egitasmoan genero ikuspegia txertatzeko birtartekoak eskaini. Modu iraunkor batez emakumeek autoa eskuratzeko duten egoera eskasagoa eta garraio publikoa eskuratzeko baldintzak hobetzeko proposamenak diseinatu eta garatzea.	Berdintasun Zerbitzua Garapen Agentzia				

**ADIERAZLEAK**

Aholkularitza kopurua  
 Genero ikuspegia txertatuta duten azterlan kopurua  
 Aurrera eramandako elkartruke kopurua  
 Egindako aurkezpen kopurua  
 BP onartu duten enpresa kopurua  
 Egindako aholkularitza kopurua  
 Landa eremuko emakumeen ahalduntzea sustatzeko egindako jarduketa kopurua  
 Egindako bilera kopurua  
 Programak izan duen oihartzuna  
 Aurrera eramandako ekimen kopurua



ESKU HARTZE ARLOA: INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK							
1 PROGRAMA: EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN DETEKZIOA ETA ARRETA ESKUALDEAN							
PROGRAMAREN HELBURUA: Sakana mailan dauden baliabideen koordinazioa ahalbidetzea eta indarkeria sufritu duten emakumeei arreta egokia eskaintzea horretarako egokienak diren mekanismoak sortuz.							
KODEA	NEURRIAK	DESKRIBAPENA	ARDURADUNAK ETA LANKIDETZA	KRONOGRAMA			
				2020	2021	2022	2023
I. 1.1	Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko Sakana mailako protokoloa landu.	Sakanako emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean erantzun koordinatua eta homogeneoa emateko protokoloa Nafarroako 14/2015 legearen esku-hartze eredu berritik abiatuta.	Mank Berdintasun Zerbitzua Altsasuko Udaleko Berdintasun Zerbitzua 3 Gizarte Zerbitzuak 3 Osasun Etxeak Forzaingoa				
I. 1.2	Sakanako Tokiko Protokoloko Koordinazio mahiaren jarraipen egin eta erakundeen parte hartzea bermatu.	Tokiko Protokolok zehazten duen koordinazio mahia dinamizatu eta honen jarraipena egin.	Mank Berdintasun Zerbitzua Altsasuko Udaleko Berdintasun Zerbitzua				
I. 1.3	Protokoloak zehazten dituen bestelako guneak sortu eta dinamizatu.	Talde aholku emaile, ordezkari politikoen taldea eta beharrezkoak ikusten diren guneen koordinazioa.	Mank Berdintasun Zerbitzua Altsasuko Udaleko Berdintasun Zerbitzua				
I. 1.4	Tokiko Protokoloren ebaluazio jarraitua egin.		Mank Berdintasun Zerbitzua Altsasuko Udaleko Berdintasun Zerbitzua				
I. 1.5	Indarkeria matxista jasan duten emakumeak artatzen dituzten profesionalen trebakuntza.	Tokiko Protokoloren baitan trebakuntza plan iraunkorra martxan jarri profesionalen beharretatik abiatuta.	Mank Berdintasun Zerbitzua Altsasuko Udaleko Berdintasun Zerbitzua				
I. 1.6	Indarkeria matxista arloan Sakanako Udalen koordinazioa ahalbidetzeko mekanismoak sortu.	Tokiko Protokoloren baitan Udal ordezkarien koordinazio gunea sortu eta dinamizatu.	Mank Berdintasun Zerbitzua Altsasuko Udaleko Berdintasun Zerbitzua Udalak Berdintasun Batzordea				
I. 1.7	Sakanako talde politikoei zuzendutako prestakuntza plana.	Ordezkaritza politikoen beharretara egokitutako Prestakuntza plana.	Berdintasun Zerbitzua				
I. 1.8	Tokiko Protokoloren irisgarritasuna bermatzeko komunikazio plana martxan jarri.	Sakanako jendartera iristeko Komunikazio plan erakargarria.	Mank Berdintasun Zerbitzua Altsasuko Udaleko Berdintasun Zerbitzua				
I. 1.9	Eskualdean dauden baliabideak jendarteratu eta euskarriak sortu.	Jarain.app baliabidearen berri eman.	Mank Berdintasun Zerbitzua Altsasuko Udaleko Berdintasun Zerbitzua				
I. 1.10	Aholkularitza juridikoa bermatzeko bitartekoak jartzea.	Aholkularitza juridikoa bermatzeko bitartekoak jarri.	Mank Berdintasun Zerbitzua				



1. 1.11	Festa eta aisialdi eremuetan ematen diren eraso sexisten kontrako protokoloak martxan jarri	Sakanako 14 herrietara egokitutako festa eta aisialdi eremuetan ematen diren eraso sexisten kontrako protokoloak martxan jarri	Berdintasun Zerbitzua Udalak				
1. 1.12	Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen ahalduzko prozesuetan laguntzeko bitartekoak jarri		Mank Berdintasun Zerbitzua Altsasuko Udaleko Berdintasun Zerbitzua 3 Gizarte Zerbitzuak 3 Osasun Etxeak Forzaingoa				
1. 1.13	Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei babesa emateko laguntza sareak sortu.		Mank Berdintasun Zerbitzua Altsasuko Udaleko Berdintasun Zerbitzua 3 Gizarte Zerbitzuak				

#### ADIERAZLEAK

Protokoloa egin izana  
Izandako saio kopurua  
Koordinazio bilera kopurua  
Parte hartu duten pertsona kopurua sexu aldagaia kontuan hartuta  
Ebaluazio jarraiaren emaitza  
Protokoloaren jarraipenerako egindako bilera kopurua  
Formazio ordu kopurua  
Parte hartu duten ordezkari kopurua sexu aldagaia kontuan hartuta  
Ordu kopurua  
Komunikazio agerraldi kopurua  
Sortutako euskarri kopurua  
Bitartekoa jarri izana  
Onartutako protokolo kopurua



ESKU HARTZE ARLOA: INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK							
2 PROGRAMA: INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK							
PROGRAMAREN HELBURUA: Emakumeenganako indarkeriaren inguruko sentsibilizazioan eta prebentzioan lan egitea.							
KODEA	NEURRIAK	DESKRIBAPENA	ARDURADUNAK ETA LANKIDETZA	KRONOGRAMA			
				2020	2021	2022	2023
1.2.1	Sakana mailan, berdintasun ezarekin, diskriminazioarekin eta emakumeenganako indarkeriarekin lotuta, ematen diren gertaerak publikoki salatzea. Erantzun instituzionala.	Erantzun instituzional bateratua adostu Sakanako Udal guztietan.	Berdintasun Zerbitzua Udalak Berdintasun Batzordea				
1.2.2	Eraso sexistarik gabeko festen aldeko kanpaina bateratua sendotu herri guztietan. (Trebakuntza, informazioa, sentsibilizazioa..)	14 herrietan "Eraso sexistarik gabeko" festen aldeko kanpainak bultzatu Udal eta herriko eragileekin elkarlanean.	Berdintasun Zerbitzua Udalak Herriko eragileak eta festa batzordeak				
1.2.3	Data jakinen inguruan sentsibilizazio kanpainak antolatzea. (Azaroak 25, ...)	Data esanguratsuetan eskualde mailako programazioa adostu, Nafarroako kanpaina bateratuan parte hartuz.	Berdintasun Zerbitzua Udalak Mank				
1.2.4	Gazteen artean sentsibilizazioa lantzeko jarduerak martxan jarri.	Gazteen arteko harremanak eta tratu onak lantzeko ekimenak martxan jarri.	Berdintasun Zerbitzua Udalak				
1.2.5	Hezkuntza ez-formaleko begiraleekin Indarkeria sexista prebenitzeko eta tratu onak lantzeko trebakuntza eta hausnarketa gunea sortu.		Berdintasun Zerbitzua Udalak				
1.2.6	Sare sozialen bidez sortzen diren erasoak detektatzeko eta hauei aurre egiteko sentsibilizazioa.	Hauen erabileraren inguruko eztabaidak.	Berdintasun Zerbitzua Gizarte Zerbitzuak Kultur teknikariak				
1.2.7	Indarkeria matxistaren inguruko sentsibilizazio materiala sortu eta egoe- ra ikustarazteko bitartekoak jarri.	Adin ezberdinak eta interseksionalitatea kontuan hartuz.	Berdintasun Zerbitzuak				
1.2.8	Emakumeei bideratutako tailerrak antolatu. Indarkeria nola antzeman, nola aurre egin eta autodefentsa feminista.		Berdintasun Zerbitzua				
1.2.9	Gizonezkoei bideratutako sentsibilizazio kanpainak indarkeria sexistaren kontra modu aktiboan parte har dezaten.		Berdintasun Zerbitzua				



1. 2.10	Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko espazioak sustatzea eta bistaritzea. (Merkatari elkarteak, ostalaritza..)		Berdintasun Zerbitzua				
1. 2.11	Nafarroa mailan burutzen diren programetan parte hartzea.		Berdintasun Zerbitzua				
1. 2.12	Tokiko komunikabideekin indarkeriaren inguruko lanketa egin eta koordinazio gune bat sortu.		Berdintasun Zerbitzua Bierrik				
1. 2.13	Enpresetan emakumeen kontrako indarkeriaren kontrako protokoloak onartzeko sustapen lana egin.		Berdintasun Zerbitzua Garapen Agentzia Sindikatuak				

#### ADIERAZLEAK

Irizpideak jarri izana  
Irizpide hauek kontuan hartu izana  
Aurrera eramandako ekintza kopurua eta koordinazio bilera kopurua  
Programazio bateratua egin izana  
Antolatutako jarduera kopurua  
Parte hartzaile kopurua sexu aldagaia kontuan hartuta  
Antolatutako ekimen kopurua eta parte hartzaile kopurua sexu aldagaia kontuan hartuta. Parte hartzaileen balorazioa  
Material kopurua eta izandako oihartzuna  
Antolatutako tailer kopurua.  
Parte hartutako emakume kopurua  
Parte hartzaileen balorazioa  
Antolatutako tailer kopurua.  
Parte hartutako gizon kopurua  
Egindako koordinazio bilera kopurua



ESKU HARTZE ARLOA: BIZITZAREN JASANGARRITASUNERAKO ITUN SOZIAL BERRIA							
<b>1 PROGRAMA: Zaintza-lanei balioa ematea, bizitzari eusteko funtsezkoak diren aldetik</b>							
<b>PROGRAMAREN HELBURUA:</b> Balio aldaketa sustatzea, bizitzaren jasangarritasuna bermatzeko behar den zaintzaren erantzunkidetasuna eta zaintzaren etika bultzatuz.							
KODEA	NEURRIAK	DESKRIBAPENA	ARDURADUNAK ETA LANKIDETZA	KRONOGRAMA			
				2020	2021	2022	2023
B. 1.1	Ekonomia feministan sakontzeko jarduerak martxan jarri.	Prestakuntza eta hausnarketa guneak martxan jarri.	Berdintasun Zerbitzua-Garapen agentzia Sindikatuak				
B. 1.2	Hausnarketarako eta lanerako guneak sustatu Zaintzaren Etikaz eta eginkizunak erantzunkidetasunez bateratzeaz jarduteko.		Berdintasun Zerbitzua-Hezkuntza komunitatea				
B. 1.3	Sakanako egoera sozioekonomikoaren azterketa egitea ekonomia feminista ardatz hartuta.	Covid-19 krisiak izan duen eraginaren inguruko azterketa sozioekonomikoa ekonomia feminista-ren ikuspegitik.	Berdintasun Zerbitzuak (Mank eta Altsasuko Udala) Garapen agentzia Sindikatuak				
B. 1.4	Bateragarritasunaren aldeko Tokiko Ituna prestatzea INAIk diseinatu eta garaturiko lan metodologia jarraituz	INAIK diseinatutako lan metodologian oinarritutako prozesuen aurkezpena egin.	Berdintasun Zerbitzua Ituna sinatu duten eragile eta erakundeak				
B. 1.5	Zaintza-lanak erdigunean kokatzeko sustapen lana egitea eta zaintza-lanei balorea emateko sentsibilizazioan eragitea. Zaintza lanen duintasuna eta prestigioa handitu eta bermatzea. Protagonisten parte hartze aktiboa bermatuz.	Zaintza lanak erdigunean kokatzeko sentsibilizazio kanpainak martxan jarri.	Berdintasun Zerbitzua Garapen Agentzia 3 Gizarte Zerbitzuak Anitzartean				
B. 1.6	Zaintza-lanen banaketa erantzunkidea sustatzeko sentsibilizazio kanpainak sustatu.	Erantzunkidetasuna ardatz duten sentsibilizazio kanpainak martxan jarri.	Berdintasun Zerbitzua				
B. 1.7	Elkarbizitza eta familia-eredu berriak ikustarazteko programak sustatu.	Familia eredu berriak ikustarazteko kanpaina komunikatiboak, kultura ikuspegia kontuan hartuz.	Berdintasun Zerbitzua Anitzartean Hezkuntza komunitatea				
B. 1.8	Denbora kudeatzeko modu berriak garatu eta ezartzea.	Denboraren bankua eta bestelako ekimenak martxan jartzeko bideragarritasuna aztertu eta egoki ikusten bada, martxan jarri.	Berdintasun Zerbitzua Sakanako eragile sozialak				



## ADIERAZLEAK

Egindako jarduera kopurua  
Parte hartzaile kopurua sexu aldagaia kontuan hartuta  
Azterketa egin izana  
Azterketaren ondorioak  
Ituna sinatu izana  
Parte hartu duten eragile kopurua  
Kanpaina kopurua eta izandako oihartzuna  
Programa martxan jarri izana eta parte hartzaile kopurua sexu aldagaia kontuan hartuta  
Martxan jarritako ekimen kopurua eta parte hartzaile kopurua



2 PROGRAMA: ZAINKETEN JARDUN DUIN ETA BIDEZKOA ESKUALDEAN							
PROGRAMAREN HELBURUA: ZAINKETEN JARDUN DUIN ETA BIDEZKOA BERMATZEA BAI FAMILIA ESPARRUAN BAI MAILA PROFESIONALEAN							
KODEA	NEURRIAK	DESKRIBAPENA	ARDURADUNAK ETA LANKIDETZA	KRONOGRAMA			
				2020	2021	2022	2023
B. 2.1	Zaintza lantzen jarduten den kolektiboari buruzko ikerketa egitea (langileen profila, lan baldintzak, ordutegiak, ezkutuko ekonomia).	BERTAN egitasmoaren baitan Sakanan zaintza lanetan jarduten den kolektiboaren inguruko ikerketa.	Berdintasun Zerbitzua 3 Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak Garapen Agentzia Anitzartean				
B. 2.2	Etxeko zaintzan aritzeko modu duin eta ekitatibo bat lortzeko ekintzak zaintzaileen ahalduzkoak eta familiaren erantzukidetasunetik abiatuta.	Mendekotasun egoeraren inguruko diagnostikoa, Sentsibilizazio kanpainak, laguntza eta aholkularitza eskaini.	Berdintasun Zerbitzua 3 Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak Garapen Agentzia				
B. 2.3	Zaintzen sektorean lan-baldintza duinak sortzen laguntzeko ekimenak eta egitasmoak garatu.	BERTAN egitasmoaren baitan (lan-eskubideen inguruko sentsibilizazio kanpainak, profesionalen zuzendutako ekintzak, lan orientazioa genero ikuspegia kontuan hartu.	Berdintasun Zerbitzua 3 Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak Garapen Agentzia				
B. 2.4	Zaintzen sektorean lan egiten duten emakumeen lan eskubideei buruzko programa sustatu jatorri anitzeko zaintzaileetan arreta jarri.		Berdintasun Zerbitzua 3 Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak Anitzartean				
B. 2.5	Zaintzaileen arteko sareak edo topalekuak eta laguntzarako zerbitzuak sustatzea.	Laguntza sareak antolatu, jatorriari dagokionean anitzak direla bermatuz.	Berdintasun Zerbitzua 3 Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak Anitzartean Kirol Zerbitzua Garapen Agentzia				
ADIERAZLEAK							
Ikerketa egin izana Egindako ekintza kopurua eta parte hartzaile kopurua Egindako egitasmo kopurua eta hauen balorazioa Martxan jarritako ekimen kopurua							



1 PROGRAMA: EMAKUMEEN AUTONOMIA eta AHALDUNTZEA							
PROGRAMAREN HELBURUA: Emakumeen ahalduntze pertsonala eta kolektiboa sustatzeko neurriak sustatzea eta hauen autonomia sozio ekonomikoa bultzatzea							
KODEA	NEURRIAK	DESKRIBAPENA	ARDURADUNAK ETA LANKIDETZA	KRONOGRAMA			
				2020	2021	2022	2023
A. 1.1	Genero ezberdintasunak emakumeengan nolako eragina duen jabetzeko sentsibilizazio kanpainak.	Sentsibilizazio kanpainak burutzea gai edo data batzuen inguruan.	Berdintasun Zerbitzua Komunikazioa				
A. 1.2	Eskualdeko ahalduntze eskola martxan jartzeko bideak aztertu eta martxan jarri.	Eskualde mailako ahalduntze eskola martxan jartzeko bideragarritasun azterketa egin Udaletako baliabideekin elkarlanean.	Berdintasun Zerbitzua Sakanako kultur teknikariak Gizarte Zerbitzuak				
A. 1.3	Eskualdeko ahalduntze eskolaren baitan emakumeen ahalduntze pertsonala eta kolektiboaren inguruko eskaintza sortu eta zabaltu.	Emakumeen autonomia, autoestima eta ongizate fisikoa, emozionala eta sexuala hobetzera bideratuta dauden ikastaroak eskaintza eta hauen zabalkundea.	Berdintasun Zerbitzua Sakanako kultur teknikariak Gizarte Zerbitzuak				
A. 1.4	Emakumeek nork bere burua zaintzeko ekimenak sustatzea, adinari, premiari, jatorri eta interesi erreparatuta (jarduera fisikoa, elikadura,...).	Kirol Orientazio Zerbitzuaren esku hartzearen lankidetzarekin emakumeen ahalduntze programak Kirol praktika eta ohitura osasuntsuen bidez.	Berdintasun Zerbitzua Kirol Zerbitzua Anitzartean				
A. 1.5	"Interseksionalitatea" landuko duten ekimenak martxan jarri.	Bestelako eragileekin elkarlanean "interseksionalitatea" landuko duten ahalduntze ikastaroak antolatu.	Berdintasun Zerbitzua Anitzartean Zerbitzua Gizarte Zerbitzuak				
A. 1.6	Kultur aniztasuna kontuan hartzen duten ahalduntze ikastaro edo lantegiak martxan jarri.	Anitzartean Zerbitzuarekin elkarlanean Ahalduntze ikastaroak antolatu kultur aniztasuna kontuan hartuz.	Berdintasun Zerbitzua Anitzartean Zerbitzua Gizarte Zerbitzuak				
A. 1.7	Adin ezberdinetako emakumeen arteko ahalduntze saiok antolatu.	Adin ezberdinetako emakumeak bilduko dituen topalekuak errazteko bideak eman, ikastaro edo topaketen bidez. (Kirol Orientazio Zerbitzuarekin elkarlanean).	Berdintasun Zerbitzua				
A. 1.8	Emakumeen ahalduntzea <b>berariazko modulu</b> gisa sartzeko emakumei zuzenduriko programetan.	Kultur, kirol zein prestakuntza programetan emakumeen ahalduntzearen inguruko modulu txertatu.	Berdintasun Zerbitzua Mank Zerbitzuak Kultur teknikariak				
A. 1.9	Emakume migratuen alfabetatzea bermatzeko bideak jarri.		Anitzartean Zerbitzua Gizarte Zerbitzuak Ikastetxeak				
A. 1.10	Herrietako emakume eta emakume migratzaileen arteko sareak sortzea.	Kultura eta jatorri ezberdina dutenen arteko topaketak antolatu.	Berdintasun Zerbitzua Anitzartean Zerbitzua Ikastetxeak Gizarte Zerbitzuak				



A. 1.11	Emakume helduak. BERTAN Zahartze aktiboko programan genero ikuspegia txertatzeko neurriak hartu	Bertan proiektuaren baitan genero ikuspegia txertatzeko aholkularitza eskaini eta elkarlanerako bideak sustatu.	Berdintasun Zerbitzua Garapen Agentzia Gizarte Zerbitzuak BERTANen parte hartzen duten eragileak			
A. 1.12	Neska gazteei bideratutako ahalduntze programa iraunkorrak sustatu	Sakanako Gazte txoko eta ikastetxeekin elkarlanean neska gazteendako ahalduntze programa martxan jarri.	Berdintasun Zerbitzua Gazte txokoak Hezkuntza			
A. 1.13	Harreman afektibo sexualen, genero-identitatearen askatasunaren eta aniztasunaren inguruko sentsibilizazio ekimenak eta trebakuntza programak sustatu		Berdintasun Zerbitzua Gizarte Zerbitzuak			
A. 1.14	Eskualdeko emakumeen enpleguen kalitatea eta laneratze bideak hobetzeko proiektuak martxan jarri, eskualdean emakumeen enpleguari buruzko azterlan edo diagnostikoa kontuan hartuta.	Sakanako emakumeen enpleguaren inguruko azterlana egin.	Berdintasun Zerbitzua Garapen Agentzia Cederna Garalur			
A. 1.15	Lan munduan Sakanako emakumeen parte hartzea landu ahal izateko eskualdean lan honetan diharduten entitateekin elkarlana sustatu	Sakanako emakumeen enpleguaren inguruko lanketa egiteko oinarriak finkatu.	Berdintasun Zerbitzua Sakanako garapen agentzia, Cedrena Garalur, Nafar Lansare			
A. 1.16	Herri txikietan "Emakumeen foroak" martxan jarri. Jarduera edo gai baten inguruko topaketak adin eta jatorri ezberdinetako emakumeak elkartuz.	Emakumeen foroak martxan jartzeko aholkularitza eskaini kultur aniztasuna kontuan hartuz eta jatorri anitzeko emakumeen foroak izatea bermatu.	Berdintasun Zerbitzua Berdintasun Batzordea Anitzartean Udalak			

**ADIERAZLEAK**

Egindako kanpaina kopurua  
Azterketa egitea  
Antolatutako ikastaro kopurua  
Parte hartu duten emakume kopurua  
Jardueren ebaluazio fitxak  
Antolatutako ekimen kopurua  
Egindako bilera kopurua  
Antolatutako ikastaro kopurua  
Izandako eragina  
Kordinazio bilera kopurua  
Azterlana egin den edo ez  
Jatorri ezberdin kopurua



2 PROGRAMA: EMAKUMEEN PARTAIDETZA SOZIO POLITIKOA							
PROGRAMAREN HELBURUA: Emakumeen partaidetza soziopilitikoa bultzatu, Sakanako emakumeak eskubide osoko solaskide sozio-politikoak izateko balintzak sortuz.							
KODEA	NEURRIAK	DESKRIBAPENA	ARDURADUNAK ETA LANKIDETZA	KRONOGRAMA			
				2020	2021	2022	2023
A. 2.1	Emakumeen partaidetza sozio politikoaren inguruko prestakuntza bultzatu	Emakumeen partaidetza politikoaren inguruko jarduerak antolatu.	Berdintasun Zerbitzua				
A. 2.2	Nafarroako emakume politikarien foroan parte hartzeko aukera eta honen jarraipena egin.	NBI-ak bultzatutako programaren jarraipena egin.	Berdintasun Zerbitzua NBI Berdintasun Batzordea				
A. 2.3	Emakume elkarteak eta mugimendu feminista saretzeko aholkularitza.	Emakume talde zein talde feministekin elkarlanerako oinarriak finkatu eta emakumeen elkarten arteko elkarguneak sortu. (eskualde mailan edo herri bat baino gehiago batera).	Berdintasun Zerbitzua Emakume elkarteak eta talde feministak				
A. 2.4	Aukera dagoen herrietan Berdintasun Batzordeak sortu.	Aukera dagoen herrietan Berdintasun Batzordea sortu eta aholkularitza eskaini.	Berdintasun Zerbitzua Berdintasun Batzordea				
A. 2.5	Sakanako elkarte sarearen inguruko azterlana egin. Sexu aldagaia jaso eta sistematizatu, eta kirol eta kultur arloan emakumeen eta gizonen parte hartzea nolakoa izan den ezagutu.	Kultur eta kirol elkarten azterlana egin.	Berdintasun Zerbitzua Kirol Zerbitzua Kultur teknikariak				
ADIERAZLEAK							
Egindako jardueran parte hartutako emakume kopurua Parte hartu duten politikarien zenbatekoa Balorazioa Aholkularitza kopurua Batzordea sortu den herri kopurua Parte hartzaile kopurua Azterketa egitea Datuak sexu aldagaia kontuan hartuta dauden							



ESKU HARTZE ARLOA: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA, PARTE HARTZE SOZIO-POLITIKOA ETA JENDARTEAREN BALOREEN ALDAKETA							
3 PROGRAMA: ERROTIK SAKANA PAREKIDEA. JENDARTEAREN BALOREEN ALDAKETA ETA BERDINTASUNAREN ALDEKO SAKANA							
PROGRAMAREN HELBURUA: Sakanako balioen aldaketa sustatzea rol eta estereotipoak deuseztatuz. Berdintasunaren aldeko eskualdea izateko neurriak hartuz.							
KODEA	NEURRIAK	DESKRIBAPENA	ARDURADUNAK ETA LANKIDETZA	KRONOGRAMA			
				2020	2021	2022	2023
A. 3.1	Data esanguratsuetan sentsibilizazio kanpainak martxan jarri. Programazioa eskualde mailan landu herri txikien presentzia bermatuz. (Martxoak 8, urriak 15, azaroak 25,...).	Data esanguratsuetan sentsibilizazio kanpainak martxan jarri Nafarroako kanpaina bateratuekin bat eginez.	Berdintasun Zerbitzua Kultur teknikariak Herrietako batzordeak				
A. 3.2	Sakanako liburutegiekin elkarlanean, berdintasuna sustatuko duten ekintzak antolatzea.	Liburu, irakurgai eta filmen hautaketa data jakinen inguruan, umeekin genero-ikuspegia lantzerako bideratutako saioak ipuin-kontalariekin.	Berdintasun Zerbitzua Sakanako liburutegiak				
A. 3.3	Sakanako Ostalari eta farmazialarien parte hartzea sustatzea M8 edo Az25 kanpainetan komunikazio euskarrien bidez kanpainarekin bat egin dezaten.	Data esanguratsuetan denda eta bestelako establezimenduetan komunikazio euskarrien erakusleho izateko ekimenak martxan jarri.	Berdintasun Zerbitzua Ostalari elkarteak				
A. 3.4	Maskulinitateen inguruko lanketa egin Sakanako gizonekin (formazioa, topaketak,...).	Gizentasun eredua deseraikitze jarduerak edo topaguneak antolatu rol eta estereotipo sexistak deuseztatzea helburu duten jardueren bidez.	Berdintasun Zerbitzua Kultur teknikariak Herrietako batzordeak				
A. 3.5	Genero identitate anitzen LGTBI + inguruko lanketa egin Sakanako herri guztietan.	Kattalingune Zerbitzuarekin elkarlanean herrietan informazio eta sentsibilizazio jarduerak.	Berdintasun Zerbitzua Udalak Kultur teknikariak Gizarte Zerbitzuak				
A. 3.6	Sakanako emakumeen lorpenak ikustarazi eta aitortzeko ekimenak martxan jarri.	Eskualdeko emakumeak, haien ekarpenak eta jakituriak ezagutarazteko eta ikusgarri egiteko programa.	Berdintasun Zerbitzua				
A. 3.7	Herriko festetan genero ikuspegia txertatzeko egitasmo pilotua martxan jarri.	Aukera dagoen herrietan festen inguruko behaketa genero ikuspegia kontuan hartuz eta aurrera begirako proposamenak zehaztu.	Berdintasun Zerbitzua Kultur teknikari/zinegotzi				
A. 3.8	Sakanako herriko festak antolatzen dituzten eragileen sentsibilizazioa lantzeko ekimenak martxan jarri.	Festa antolatzailerik formazio eta aholkularitza eskaini programazioan genero ikuspegia kontuan har dezaten.	Berdintasun Zerbitzua Kultur teknikari/zinegotzi Festa batzordeak				
A. 3.9	Sakanako kultur mahian genero ikuspegia txertatzeko aholkularitza eskaini.	Eskaintza kulturean genero ikuspegia txertatzeko aholkularitza eskaini.	Berdintasun Zerbitzua				



A. 3.10	Sakanako gaztetxe eta gazte elkarteekin lanketa berezia egin. Genero rolak eta estereotipoak gainditzeko ekimenak martxan jarri.	Genero rolak, estereotipoak eta tratu onak lantzeko ekimenak martxan jarri.	Berdintasun Zerbitzua Gazte Asanbladak				
A. 3.11	Berdintasun baloreak lantzeko kanpaina bat martxan jarri	Berdintasun baloreak lantzeko kanpaina.	Berdintasun Zerbitzua Berdintasun Batzordea				
A. 3.12	Sakanako elkarte ezberdinekin lanketa egin Berdintasunaren aldeko elkarteak izateko pausuak eman ditzaten. (Kultur elkarteak, gastronomikoak, ...).		Berdintasun Zerbitzua Udalak				
A. 3.13	Bizitza osasungarria. Kirolean eta jarduera fisikoan genero ikuspegia txertatzea.	PE-ko Bizimodu osasungarria proiektuaren barruan (kirol orientazio zerbitzuan) genero ikuspegia txertatzeko aholkularitza eskaini eta elkarlana sustatu.	Berdintasun Zerbitzua Kirol Zerbitzua				
A. 3.14	Nesken kirol praktika sustatzeko estrategia berriak diseinatzea.	Lehen Hezkuntzatik bigarren hezkuntzara salto egiten duten neskei bideratutako estrategia berritzaileak garatu. Kirol Orientazio Zerbitzuaren bidez kirol munduan emakumeen presentzia eragin.	Berdintasun Zerbitzua Kirol Zerbitzua				
A. 3.15	Kultura ikuspegi feministatik lantzeko ekimenak sustatu.		Berdintasun Zerbitzua Kultur teknikariak Euskara Zerbitzua				
A. 3.16	Herrietako kultur programazioan genero ikuspegia kontuan hartzeko baliabideak eskaini.		Berdintasun Zerbitzua Kultur teknikariak Herrietako batzordeak				
A. 3.17	Euskara arloko ekimenean genero ikuspegia txertatzeko baliabideak eskaini.	Euskararen normalizaziorako jardueretan genero ikuspegia txertatu eta euskalgintzako eragileendako berariazko trebakuntza eskaini.	Berdintasun Zerbitzua Euskara Zerbitzua				
A. 3.18	Esku hartze komunitarioko jardueretan genero ikuspegia eta kultur aniztasuna txertatzeko baliabideak eskaini.		Berdintasun Zerbitzua Anitzartean Zerbitzua Gizarte Zerbitzuak				

**ADIERAZLEAK**

Antolatutako kanpaina kopurua  
 Parte hartzaile kopurua sexu aldagaia kontuan hartuta  
 Antolatutako ekimen kopurua eta parte hartzaile kopurua  
 Parte hartzen duten denda kopurua  
 Egin diren jarduera kopurua, parte hartzaile kopurua eta hauen balorazioa  
 Aurrera eramandako ekimen kopurua eta izandako oihartzuna  
 Egitasmo pilotu kopurua  
 Egindako aholkularitza kopurua.

Martxan jarri diren ekimen kopurua eta parte hartzaile kopurua  
 Kanpaina martxan jarri den ala ez eta honen balorazioa  
 Parte hartu duten elkarte kopurua  
 Aholkularitza kopurua  
 Martxan jarri diren ekimen kopurua eta parte hartu duten emakumeen kopurua  
 Ekimen kopurua  
 Egindako aholkularitza kopurua



4 PROGRAMA: HERRI HEZKIDETZAILEAK							
PROGRAMAREN HELBURUA: Hezkidetzeta eta tratu onak ardatz dituen herri hezitzaile izateko oinarriak jartzea							
KODEA	NEURRIAK	DESKRIBAPENA	ARDURADUNAK ETA LANKIDETZA	KRONOGRAMA			
				2020	2021	2022	2023
A. 1.1	Herri hezkidetzailleak egitasmo pilotuak martxan jarri aukera dagoen herrietan.	Hezkidetzeta modu integralean kontuan hartu duen egitasmo pilotuak martxan jarri.	Berdintasun Zerbitzua Kirol Zerbitzua Euskara Zerbitzua Anitzartean Udalak				
A. 1.2	Eskualdeko ikastetxeekin Hezkidetzeta modu iraunkorrean lantzeko egitasmoak martxan jarri eta koordinazioa indartu.	Hezkidetzeta gaia lantzeko ikastetxeekin modu iraunkor batean lan egin eta proiektu komunak aurrera eraman.	Berdintasun Zerbitzua Sakanako ikastetxeak				
A. 1.3	Hezkuntza ez arautuan (kirol, aisialdi..) hezkidetzeta ikastaroak sustatu.	Sakanan eskaintzen diren aisialdi eta kirol jardueretan hezkidetzeta kontuan hartzea.	Berdintasun Zerbitzua Kirol Zerbitzua Euskara Zerbitzua Anitzartean Udalak				
A. 1.4	Haur eta gazteei bideratutako kirol eskaintzaren azterketa egin ahal izateko oinarriak finkatu (Sexuaren arabera banatuta dauden aztertzeke).	Sakanako herrietan haur eta gazteei bideratutako kirol eskaintza aztertu ahal izateko aurrelana egin eta Kirol zerbitzuarekin elkarlanean.	Berdintasun Zerbitzua Kirol Zerbitzua				
A. 1.5	Kirol elkarteetan hezkidetzeta eta tratu onen inguruko formazioa eskaini.		Berdintasun Zerbitzua Kirol Zerbitzua				
A. 1.6	Kirol taldeekin emakume eta gizonen arteko berdintasunerako Planak egiteko aukerak aztertu		Berdintasuna Kirol Zerbitzua				
A. 1.7	Guraso elkarteekin Hezkidetzeta eta tratu onen inguruko kontzientziazio eta sentsibilizazioa landu.	Hezkidetzan hezi, berdintasunean bizi programari jarraikortasuna eman.	Berdintasun Zerbitzua Sakanako ikastetxeak				
A. 1.8	Hezkuntza afektibo sexualaren inguruko aholkularitza bermatzeko neurriak hartu. (Aholkularitza Zerbitzua, tailerrak eskaintzea...).		Berdintasun Zerbitzua				
A. 1.9	Olazti, Etxarri, Arbizu eta Irurtzango Gazte Txokoekin elkarlana sustatu balio aldatetan eragiteko jarduerak bultzatuz. Ikuspegi feminista praktikan jartzeko egitasmoak sustatu.	Gaztetxoekin eragin handiena duten gaiei heltzeko kontzientziazio lana begiraleekin.	Berdintasun Zerbitzua Kultur teknikariak Gazte Txokoetako begiraleak				
A. 1.10	Sakanako neska mutikoen aisialdi eskaintzaren azterketa egin ahal izateko oinarriak finkatu. (Sexuaren arabera banatuta dauden aztertzeke)	Sakanako herrietan haur eta gazteei bideratutako aisialdi eskaintza aztertu ahal izateko aurrelana egin	Berdintasun Zerbitzua Kirol Zerbitzua Euskara Zerbitzua Anitzartean Udalak (Kultur teknikariak, Gaztetxokoak, Ikastetxeak				



## ADIERAZLEAK

Egindako koordinazio bilera kopurua  
Martxan jarritako esperientziak  
Antolatutako ekimen kopurua  
Aurre lan hori egiteko egindako bilera kopurua  
Antolatutako ikastaro kopurua, parte hartzaile kopurua eta hauen balorazioa  
Aholkularitza kopurua  
Antolatutako ekimen kopurua, parte hartzaile kopurua eta hauen balorazioa  
Azterlana egin izana eta honen emaitza





# errotik

SAKANA PAREKIDEA

## 3. ZATIA PLANAREN KUDEAKETA EREDUA

## 3.1. PLANAREN GARAPENERAKO EGITURAK

Emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzea Tokiko entitate guztien ardura da eta arduradun tekniko eta politikoen beharra dauka. Haien ardura ezberdinetatik tokiko berdintasun politikak sustatu, kudeatu eta ebaluatu ahal izateko.

Hauek dira Sakanako koordinazio eta kudeaketa egiturak:

### BERDINTASUN ZERBITZUA

**Norkosatzen dute:**

- Berdintasun teknikaria
- Berdintasun Batzordeko lehendakaria
- Berdintasun teknikaria

**Eginkizunak:**

- Sakanako emakume eta gizonen arteko Berdintasun Plana aurrera eraman
- Plana ezagutzen du eta Berdintasun Alorreko urteko plangintza diseinatzeko esparruetarako erabiltzen du.
- Lan-programak eta jarduketak koordinatu eta kudeatzen ditu.
- Ekintza batzuk abiarazteaz arduratzen da.
- Plana ezartzeko prozesua ebaluatzen du, hobetu beharra duten arloak hautematen ditu eta haiek hobetzeko bideak sortzen ditu.
- Bere erantzukizun-esparrutik ari dela, beste interes-talde batzuk aholkatu eta prestatzen ditu, hala nola udal alorrak, arduradun politikoak, emakume taldeak edo/eta talde feministak, elkarteak, etab.
- Berdintasun Alorrean burutzen den lanaren berri ematen du, eta hura ikusgarri egiten.
- Koordinaziorako bideak zabaltzen ditu lanean aritzeko bestelako elkarte eta erakundeekin, eta berdintasun alorrak dauzkaten beste Toki Entitate batzuekin.

### Berdintasun Batzordeko lehendakaria

**Eginkizunak:**

- Berdintasun Alorreko ordezkari politikoa da eta alorraren helburuak eta lana ikusarazten du.
- Plangintza eta kudeaketarako ibilbidea ezagutzen dute eta badakite nola gauzatzen den urtero Toki Entitatean.
- Plangintzari buruzko erabakiak hartzen dituzte kontuan harturik zein diren lan-programen ebaluazioak erakusten dituen emaitzak
- Haien ardura da ibilbidearen esparruaren arabera lan egiteko behar diren baldintzak badaudela ziurtatzea.

### MANKOMUNITATEKO BERDINTASUN BATZORDEA

**Norkosatzen dute:**

- Berdintasun teknikaria
- Berdintasun Batzordeko lehendakaria

Sakanako 14 herrietako berdintasun zinegotziak  
Berdintasun eragileak

**Eginkizunak:**

- Udalekin bitartekaritza lana egitea eta Udaletan da berdintasun politikak eta helburuak betetzen direla bermatzea
- Genero ikuspegia Toki Administrazioan sustatzea, kasu honetan Sakanako Mankomunitateko arlo guztietan.
- Gainerako arlo guztietan berdintasuneko politikari dagokienez hartzen diren erabakiak koordinatzea.
- Berdintasuneko politika publikoak bultzatzeko hartzen diren erabakien jarraipena egitea.
- Planaren helburuen betetze mailaren jarraipen eta kontrol politikoa egitea.
- Balizko neurri zuzentzaileak proposatzea eta haien aplikazioa baloratzea.
- Gaur egun berdintasunaren alde lanean ari diren eta lan egin nahi duten taldeen elkarlana bultzatzea: talde feministak eta emakume taldeak.
- Gogoetarako gune bat sortzea, genero-azterketa bultzatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren gaiaz mintzatzeko.

## SAKANAKO MANKOMUNITATEKO KOORDINAZIO EGITURA (PLAN ESTRATEGIKOAREN BAITAN SORTU DEN HTN)

**Nork osatzen dute:**

Sakanako Plan estrategikoaren baitan Hausnarketa talde nagusian parte hartzen duten ordezkariak

**Eginkizunak:**

- Berdintasun Planaren jarraipena egitea eta aloz-arlo landu denaren jarraipena egitea.
- Zerbitzuetan genero ikuspegia kontuan hartuta lan egin dezaten laguntza eskaintzea
- Zerbitzuetako langileei trebakuntza eskaintzea
- Urteko txostena egitea eta Planaren helburuak bete diren ikusteko kontrastea egitea.

## SAKANAKO BI BERDINTASUN ZERBITZUAK \*\*

### **Norkosatzen dute:**

Sakanako Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzua  
Altsasuko Udaleko Berdintasun Zerbitzua

### **Eginkizunak:**

- Bi sailen arteko koordinazio egitura egonkortzea
- Eskualde ikuspegia kontuan hartuko duten berdintasun politikak aurrera eraman
- Planaren eta Protokoloaren baitan aurrera eramandako neurrien jarraipena egitea

## HERRIETAKO BERDINTASUN BATZORDEAK

### **Norkosatzen dute:**

Herriko Berdintasunerako zinegotzia  
Berdintasunaren alde lanean ari diren herritarrak

### **Eginkizunak:**

- Herri tipologiaren araberako bide orriak zehaztu eskualdeko BP kontuan hartuta
- Herrian jarduerak antolatzeko elkarlana sustatu
- Gaur egun berdintasunaren alde lanean ari diren eta lan egin nahi duten taldeen elkarlana bultzatzea: talde feministak eta emakume taldeak.
- Gogoetarako gune bat sortzea, genero-azterketa bultzatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren gaiaz mintzatzeko.

## UDALETAKO BERDINTASUNeko ERREFERENTZIako TEKNIKARIAK

### **Norkosatzen dute:**

Berdintasun teknikaria  
Herriko Berdintasunerako zinegotzia  
Udal teknikariak

### **Eginkizunak:**

- Informazio eta elkartruke gunea.
- Bere eskumenekoak diren udal-ekintzen garapenean parte hartzea.
- Urteko jarraipena egitea eta kudeaketa eta ekintzak hobetzeko proposamenak egitea.
- Berdintasunerako Plana udalerrietan hedatzearekin lotutako lan teknikoa kudeatzen du.

## MANKOMUNITATEKO BATZAR OROKORRA

### **Norkosatzen dute:**

Sakanako herri guztietako ordezkariak.

### **Eginkizunak:**

- Sakanako emakume eta gizonen arteko berdintasunerako I. plana onartu.
- Berdintasun Zerbitzurako urteko aurrekontua onartzen du.
- Berdintasunerako Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiten du.

## LAN TEKNIKORAKO ETA INTERLOKUZIORAKO FUNTSEZKO ERAGILEEN GUNEAK

Nafarroako toki entitateetan lan egiten dugun Berdintasun teknikarien sarea.

Ikastetxeen koordinaziorako gunea.

Sakanako emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean jarduna koordinatzeko tokiko protokoloko talde eragilea.

### 3.2. IRAUNALDIA

Berdintasunerako Planak 4 urteko iraunaldia izango du. 2020-2023

### 3.3. PLANA GARATZEKO AURREKONTUA

Sakanako Mankomunitateko Batzarrak urtero Berdintasun Plana garatzeko aurrekontua onartuko du.

## 3.4. PLANAREN KOMUNIKAZIOA

Komunikazioak eta herritarren parte hartzea lortzea izango da Sakanako emakume eta gizonen arteko berdintasunerako I. Planaren gakoetako bat. Horregatik Komunikazioari berebiziko garrantzia emango zaio eskualdeko herritarrak eta eragileak planarekin identifikazioa sentitu dezaten.

Komunikazioa, bultzaturiko jardueri buruzko informazioa zabaltzeko tresna ez ezik sentsibilizatzeko bidea ere bada, funtsezkoa emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko behar den balio aldaketa gerta dadin.

Horregatik, Plana onartzearekin batera, honen **Komunikazio plana ere onartzea** aurreikusi da. Bere iraunaldian 3 komunikazio fase bereiziko dira:

Plana onartzen denean

Planaren iraunaldia

Plana bukatzen denean

### Plana onartzen denean

Lehen fase honetan parte hartzaileak erakarri behar dira. Arreta deitu, eztabaida piztu eta herritarrak prozesuarekin identifikatu. Inplikazioa eta motibazioa prozesuaren hasieratik lortzeko bitartekoak jarriko dira.

Portaera ereduak:

**EZAGUTU** (Informazioa jaso eta eman) – **BARNERATU** (Identifikazioa piztu,emozioa)  
**EKIN** (Ekintza, parte hartzea.)

Identifikazio eta inplikazio emozionalik gabe, zaila izango da atxikimendu aktiboa eta parte hartzea bermatzea.

### Barne komunikazioa

- Planaren diseinuan parte hartu dutenei txostena bidali eta aurkezpen bilerak egin.
- Tokiko Administrazioako langileei (Mank zein Udal) txostena bidali eta aurkezpen bilerak egin.
- Ordezkaritza politikoei txostena bidali eta aurkezpen bilerak egin.

### Kanpo komunikazioa

- Berdintasun Plana jendarteratzeko herrietan aurkezpen publikoak.
- Berdintasunerako Plana zabaltzeko komunikazio estrategia berrien diseinua, baita berdintasun arloko beste jarduerena ere. Erakundeko komunikazio estrategiarekin uztartuta.
- Erakunde ezberdinetako Web guneetan txeratu.
- Planaren argitalpena egin formatu ezberdinetan (liburuxka, visual thinking, bideo...).

## Planaren iraunaldia

### Barne komunikazioa

- Urteroko kudeaketa planaren eta hauen memorien berri eman
- Maiztasun batekin Planaren praktika on baten berri eman.

### Kanpo komunikazioa

- Web gunean informazioa eguneratua izango da
- Planaren jarraipenaren berri emango da tokiko komunikabideetan urtean bitan

## Plana bukatzen denean

Plana bukatzen denean barne zein kanpo komunikazioan emaitzen berri emango da.

## INTERES TALDEAK

Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzutik egiten den lanak interes talde desberdinekin harremanak izatea dakar eta interes talde bakoitzari egokitu behar da komunikazioa.

<b>INTERES TALDEA</b>
<b>UDALETAKO ARDURADUN POLITIKOAK</b>
<b>MANKOMUNITATEKO TEKNIKARIAK</b>
<b>UDALETAKO TEKNIKARIAK</b>
<b>EMAKUME TALDEAK ETA MUGIMENDU FEMINISTA</b>
<b>HERRITARRAK</b>
<b>SAKANAKO ERAGILE SOZIO POLITIKOAK</b>
<b>SAKANAKO ERAGILE ETA ELKARTEAK</b>
<b>ERAGILE SOZIAL ETA EKONOMIKOAK</b>
<b>ERAKUNDE PUBLIKOAK</b>
<b>HEDABIDEAK</b>
<b>HEZKUNTZA ARLOA</b>

Berdintasun Zerbitzuak zer interes talderekin izango duen harremana identifikatuta, talde bakoitzaren behar eta interesen arabera estrategia eta kanala erabiliko da. (Sare sozialak, memoriak, kartelak, prentsa oharrak, filmak, erakusketak,...)

Zerbitzuaren egin beharrekoan artean Sakanako Mapeoa edo Soziograma bat egitea da. Hau ez da eragileen zerrenda huts bat izango. Grafiko bakar batean eragileak zein diren eta eragile horiek proiektuarekiko dituzten helburuak, motibazioak eta kokapenak erakutsiko dituen euskarri bat izango da.

## ZER ETA NOLA KOMUNIKATU

Sakanako Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzuaren eginkizuna berdintasun politikak garatzea da, bizitzaren arlo guztietan, publikoetan zein pribatuetan, emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeria eta bereizkeriekin amaitzeko. Beraz, alorretik bultzatzen diren mezu guztiek bat etorri behar dute eginkizun horrekin, eta interes talde guztiendako ulergarriak izateko eta denei eraginkortasunez iristeko moduan adierazi behar dira.

- **Helburu** jakin bat lortzeko proposatutako **ekintzak**.
- Identifikatzea zer **interes talderi** helarazi nahi zaien mezua eta zer helburu zehatzekin.
- Interes talde ezberdinak erakartzeko **mezu** bat prestatu.
- Mezua hedatzeko **unea** erabakitzea.
- Mezua eraginkortasunez helarazteko erabiliko den komunikazio **kanala** aukeratu.

## HIZKUNTZA

Berdintasun plana jendarteratzeko garaian, Sakanako jatorri ezberdinetako pertsonengana iristeko ahalegin berezia egingo da eta Anitzartean Zerbitzuarekin elkarlanean, zenbait euskarri bestelako hizkuntzetan ere argitaratuko dira.

## 3.5. PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

**Plan honek 151 neurri bildu ditu, parte hartze prozesuan jaso diren ekarpen guztiak kontuan hartu direlako. Hori dela eta, urteroko kudeaketa plangintzek berebiziko garrantzia izango dute urteko lehentasunak identifikatu eta zehazteko.**

Sakanako emakume eta gizonen arteko berdintasunerako I. Planaren betetze maila eta inpaktua jakin ahal izateko Planaren jarraipena eta ebaluazioa funtsezko prozesua izango da. Zentzu horretan, bi ebaluazio-mota burutuko ditugu: alde batetik, betetze-mailari dagokiona, eta, bestetik, emaitzei dagokiena.

Ebaluaziorako sistema egokia ezarriz, hurrengo helburuak lortu ahal izango ditugu:

- Berdintasunerako Plana aplikatzeak eman dituen emaitzak ezagutzea.
- Planaren neurriekin eta datuak biltzeko prozesuarekin lotutako arazoak detektatzea.
- Berdintasun-politikak erraztu edo lagundu dituzten faktoreak identifikatzea

### URTEKO KUDEAKETA PLANGINTZAK

Berdintasun Zerbitzuak urtero Planean oinarritutako urteko Plangintza aurkeztuko du Berdintasun batzordean, ekarpenak egin eta onartu ahal izateko. Urte bukaeren plangintza honen memoria aurkeztuko da eta hurrengo urteko hobetzekoak islatuko dira bertan.

### JARRAIPENA

Planaren iraunaldian etengabeko jarraipena egingo da koordinazio gune eta jarraipen sistema ezberdinen bidez, gauzatze, emaitza eta genero eraginaren adierazleak kontuan hartuta. Etengabeko jarraipenak helburuen betetze maila, hobetu beharrekoak eta bidean izandako zailtasunak bilduko ditu.

- Informazio bilketarako fitxa (informazioa kuantitatibo eta kualitatiboa bilduko duena)
- Ekintzen jarraipen fitxa
- Ekintzaren balorazioa fitxa

### INFORMAZIO BILKETARAKO FITXA

NEURRIA	EKINTZA	PARTE HARTZAILEAK			BALORAZIOA	OHARRAK
		EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA		
G.1.						
G.2						
G.3						

## EKINTZEN BALORAZIORAKO FITXA

FITXA ZENBAKIA			
Esku-hartze eremua			
PROGRAMA			
Ildo estrategikoa			
<b>Ekintza mota</b> Zeharkakotasuna Trebakuntza Sentsibilizazioa Azterketa			
Non eta noiz			
Ekintzaren izena eta deskribapena			
Arduradunak			
Komunikazioa			
Gauzatzea, emaitza eta balorazioa			
Parte hartzea sexuaren arabera banatua	Emakumeak <table border="1" style="display: inline-table; vertical-align: middle;"> <tr> <td style="width: 50px; height: 20px;"></td> <td style="width: 50px; height: 20px;"></td> </tr> </table> Gizonak		
Bestelako oharrak			

## NEURRIEN JARRAIPEN FITXA

ESKU HARTZE ARLOA	EGOERA	ZER FALTA DA	OHARRAK
<b>TOKIKO GOBERNANTZA ETA GENERO ZEHARKAKOTASUNA</b>			
<b>PROGRAMA</b>			
<b>ESKUALDEKO BERDINTASUN POLITIKAK BULTZATU....</b>			
KODEA	NEURRIA		
G.1.			
G.2			
G.3			
I.1			
I.2			

## PLANAREN EBALUAZIOA

Etengabeko jarraipen sistematizatua erabilgarria izango da Planaren iraunaldia bukatzen denean azkeneko ebaluazioa egin ahal izateko.

2024 bukaeran egingo den ebaluazioa 3 ardatz nagusitan oinarrituko da:

Prozesuaren ebaluazioa: Parte hartzea, zailtasunak,

Emaitzen ebaluazioa: Helburuen betetze maila

Eraginaren ebaluazioa: Emakume eta gizonen arteko berdintasuna erdiesteko emandako aldaketa

Ebaluaziorako irizpide orokorrak honako hauek izango dira:

- Inpaktua: Proiektuak Mankomunitate barruan eta herrietan izan duen eragina eta eragin dituen aldaketak
- Eraginkortasuna: helburuen betetze-maila eta neurrien garapen-maila.
- Estaldura: Proiektuaren onuradunen kopurua eta honen garapenean lortutako parte-hartzea zenbatekoa eta zer kalitatekoa izan den.
- Betearaztea: ezarritako kronogramaren betetze-maila eta Proiektuari esleitutako aurrekontuaren egokitasuna.
- Kalitatea: Proiektuaren segimendu eta ebaluazioan bildutako datuen eta informazioaren kalitatea.

## PLANAREN GARAPENERAKO EGITURAK





